BAZTAN

BAZTANGO PAISAIA KULTURALA ETA ONDARE ETNOGRAFIKOA EZAGUTZEKO GIDA

GUÍA PARA CONOCER EL PAISAJE CULTURAL Y EL PATRIMONIO ETNOGRÁFICO DE BAZTAN

BAZTAN

Baztango paisaia kulturala eta ondare etnografikoa ezagutzeko gida

Guía para conocer el paisaje cultural y el patrimonio etnográfico de Baztan

Iruritako Jaurgizarrga
—Dorrga—

Baztango Udala
2019

Argitaratzailea *Edita*: Baztango Udala *Ayuntamiento de Baztan*
Egilea *Autor*: Pello Iriarte Zelaieta
Azaleko argazkia *Foto de portada*: Patxi Iriarte Iparrea (Infernuko Errota)

Baztango armarria
Escudo de Baztan

AURKIBIDEA

Sarrera.....4

PAISAIA KULTURALA.....7
Kokapena.....8
Klima.....10
Landaredia eta animaliak.....12
Natura babesguneak.....16
Paisaia humanizatua.....18
Baztan lau urte-sasoietan 26

ÍNDICE

Introducción.....4

PAISAJE CULTURAL.....7
Enclave.....8
Clima.....10
Flora y fauna.....12
Espacios naturales protegidos.....16
Paisaje humanizado.....18
Baztan en las cuatro estaciones 26

ONDARE ETNOGRAFIKOA.....29
Baztango historia.....30
Baztango etxea.....44
Eraikin etnografikoak.....70
Sinismenak, bestak eta kirolak.....94

BAZTANGO HERRIAK.....111
Baztango antolamendua.....112
Almandoz.....114
Amaiur.....118
Aniz.....120
Arizkun.....122
Arraioz.....126
Azpilkueta.....128
Berroeta.....130
Elbete.....132
Elizondo.....134
Erratzu.....138
Gartzain.....140
Irurita.....142
Lekaroz.....150
Oronoz.....152
Ziga.....154

IBILBIDEAK.....157
Ibilbide balizatuak.....158
Aritzakun.....160
Arraioz-Lekaroz.....162
Autringo elur-zuloa.....164
Basaburua.....166
Baztangoiza.....168
Belate.....170
Elizondoa.....172
Gazteluzokoa.....174
Infernuko Errota.....176
Irurita.....178
Otsondoko bunkerrak.....180
Xartolako errotak.....182
Xorroxin.....184
Zozaia.....186

PATRIMONIO ETNOGRÁFICO....29
Historia de Baztan.....30
La casa en Baztan.....44
Construcciones etnográficas.....70
Creencias, fiestas y deportes.....94

LUGARES DE BAZTAN.....111
Organización de Baztan.....112
Almandoz.....114
Amaiur.....118
Aniz.....120
Arizkun.....122
Arraioz.....126
Azpilkueta.....128
Berroeta.....130
Elbete.....132
Elizondo.....134
Erratzu.....138
Gartzain.....140
Irurita.....148
Lekaroz.....150
Oronoz.....152
Ziga.....154

SENDEROS.....157
Senderos balizados.....158
Aritzakun.....160
Arraioz-Lekaroz.....162
Nevero de Autrin.....164
Basaburua.....166
Baztangoiza.....168
Belate.....170
Elizondoa.....172
Gazteluzokoa.....174
Molino del Infierno.....176
Irurita.....178
Bunquers de Otsondo.....180
Molinos de Xartola.....182
Xorroxin.....184
Zozaia.....186

Sarrera

Nafarroa hezean kokatutariko Baztango Bailaran, bidexkak, mendiak eta errekastoak sigi-saga dabiltza paisaiaren ohikoak diren borden eta baserrien artean. Iratzeek, belagiek, pagadiek eta hariztiek nahierara koloreztatzen dute margo zoragarri hau urteko edozein sasoitan, argi erakutsiz gizakiaren eta naturaren arteko milaka urtetako elkarreraginak harmoniaz beteriko batasun berezia sor dezakeela.

Hamabortz herri edo Leku udalerri bakar batean, Nafarroako zabalenean, banatzen dira. Txoko, oinetxe eta jauregi aunitz ditu; denak bat Baztanez ari garelarik. Ez dago mugarritzerik, mugarririk nahiz zedarririk. Herritar guztiek dute belaiak, bazka, ura eta egurra aprobetxatzeko eskubidea. Denek dute armarri bera, eta guztiak dira, jatorriz, kapareak; hau da,

Introducción

En el Valle de Baztan, ubicado en la denominada Navarra húmeda, senderos, regatas y montañas serpentean entre las típicas bordas y caseríos del paisaje. Helechales, pastos y bosques de hayas y robles colorean a su antojo este precioso lienzo sea cual sea la época del año, mostrándonos cómo miles de años de interacción entre el ser humano y la naturaleza pueden conformar una unidad singular plena de armonía.

Quince pueblos o Lugares se reparten en un único municipio, el más extenso de Navarra. Una variedad de lugares, casas solariegas y palacios que son uno cuando se habla de Baztan. No existen deslindes, hitos ni mojones. Todos sus habitantes tienen aprovechamiento común en los pastos, aguas y cortes de leña. Todos lle-

nobleak, berez noble izaera duen lurralde batean sortu izanagatik soilik.
Lurralde batean sortu izanagatik soilik.
Paisaia intimista honek beren tradizioak bizirik iraunarazi dituztenen, eta egunerokoan Nafarroaren milurteko hizkuntzan, euskaraz, solasten direnen kultur ondarea gordetzen du.
Laburbilduz, paisaiak halako intentsitatez bateratu ditu natura eta giza faktoreak, non ez historiaren gorabeherek ezta mendeetako kontrako ekonomiek ere ezin izan dioten halako lurralde idiliko bezain iradokitzaileari, misteriotsu bezain abegitsuari nortasunik batere kendu.
Halakoxea da Baztan Bailara, zoragarria bezain ahaztezina.

van el mismo escudo, y todos ellos son además, son hidalgos de origen, es decir, nobles por el mero hecho de haber nacido en una tierra que en si misma tiene calidad de nobleza.
Este paisaje intimista resguarda el patrimonio cultural de quienes han sabido conservar vivas sus tradiciones y que se expresan a diario en la lengua milenaria de Navarra, el euskera.
Un paisaje, en resumen, donde los factores naturales y humanos se han fundido con tal intensidad que ni los avatares de la historia ni las adversas economías de siglos han podido sustraer personalidad a esta tierra tan idílica como sugerente, tan misteriosa como hospitalaria.
Así es el Valle de Baztan, apasionante y, en igual medida, inolvidable.

Paisaia kulturala

Paisaje cultural

Kokapena

Baztan udalerria, Nafarroaren iparrean kokatua, 376,8 kilometro koadratu ditu, eta Foru Erkidegoko udalerririk zabalena da. Ibarrak honako herri hauek ditu hegotik iparrera: Almandoz, Berroeta, Aniz, Ziga, Oronoz, Arraioz, Irurita, Gartzain, Lekaroz, Elizondo, Elbete, Arizkun, Azpilkueta, Erratzu eta Amaiur. Herriak lau kuartel historikotan banatzen dira: Basaburua (Almandoz, Berroeta, Aniz, Ziga), Erberea (Oronoz, Arraioz, Irurita eta Gartzain), Elizondo (Lekaroz, Elizondo, Elbete) eta Baztangoiza (Arizkun, Azpilkueta, Erratzu eta Amaiur).

Antzinako garaietatik, Baztango herriak, edo lekuak, Unibertsitate erregimena dute; beraz, ibar osoak udal-barruti bakarra osatzen du. Ildo horretan, ibarreko herrilurrak kudeatzen dituen Batzar Nagusiaren Ordenantzen atarikoan Baztanen hamabortz Lekuak biltzen direla erraten da, eta ez Baztan hamabortz lekuen batasunak osatzen duenik.

Lur-eremu osoaren % 84, hau da 2.840 hektarea, herri-lurra da. Baztanen kokapen zehatza 2°10'10" ekialdera eta 43°8'45" iparraldera da. Mendebaldean muga egiten du Donamaria, Bertizarana eta Etxalarrekin; hegoaldean Kinto, Erregerena, Lantz, Anue eta Ultzamako herri-basoekin; ekialdean Nafarroa Beherearekin; eta iparrean Zugarramurdi, Urdazubi, Sara. Ainhoa eta Ezpeletareki.

Enclave

El municipio de Baztan, situado en el norte de Navarra, es con sus 376,8 kilómetros cuadrados el municipio más extenso de la Comunidad Foral. En el Valle se integran de sur a norte, los siguientes Lugares o núcleos de población: Almandoz, Berroeta, Aniz, Ziga, Oronoz, Arraioz, Irurita, Gartzain, Lekaroz, Elizondo, Elbete, Arizkun, Azpilkueta, Erratzu y Amaiur. A su vez, estos Lugares se agrupan en cuatro cuarteles históricos: Basaburua (Almandoz, Berroeta, Aniz y Ziga), Erberea (Oronoz, Arraioz, Irurita y Gartzain), Elizondo (Lekaroz, Elizondo y Elbete) y Baztangoiza (Arizkun, Azpilkueta, Erratzu y Amaiur). Desde tiempos ancestrales, los núcleos poblacionales de Baztan, o Lugares, se organizan en régimen de Universidad, de manera que todo el valle forma un solo término municipal. En este sentido, en el preliminar de las Ordenanzas de Junta General, entidad administradora del comunal del valle, se especifica que en Baztan se integran los quince Lugares, y no así que Baztan esté formado por la unión de quince Lugares.

El 84 % de la tierra, 2.840 hectáreas es comunal. Su posición concreta es 2°10'10" de longitud al este y 43°8'45" longitud al norte. Al Oeste muga con Donamaria, Bertizarana y Etxalar, al Sur con Quinto Real, Erreguerena, Lantz y Anue y con montes comunales de la Ultzama; al Este con la Baja Navarra y al Norte con Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Ainhoa y Ezpeleta.


Ainhoa / Sara / Baiona
Sara
Zugarramundi
Urdazubi
Urdax
BAZTAN
Otsondo
Amaiur
Erratzu
Arizkun
Lekaroz
Elbete
Elizondo
Arraioz
Oronoz
Mugaire
Irun
Donostia -
San Sebastián
Irurita
Gartzain
Ziga
Aniz
Almandoz
Berroeta
Beizama
Iruñea-
Pamplona
Artesiga
Etxalar
Zubiri /
Iruñea - Pamplona
Baigorri /
Donibane
Garazi
Axpilkueta
Amaiur
Ezpegi
Jaizkibel
Aiako Harria
Haize-hotsa
Ezkaba
Quinto Real
0
15
3km

Klima

Baztan Ibarra, klimatologiari dagokionez, eremu kantabriarrekoa da. Klima epela du, euria ugari izaten da urte osoan, eta elurte arinak negu aldera. Nolanahi ere, elurteak Baztan Ibarreko mendi eta herririk garaienetan izaten dira nagusiki. Ibarraren behealdean, berriz, neketan egiten du elurra, eta egiten duenean, ez du luzez irauten, ez baitu zuritzen.

Ibarrean hodeitza handia izaten da, eta euri aunitz egiten du. Baztango klimaren ezaugarririk aipagarriena prezipitazioak dira, urteko 1.400dik 1.600 milimetrora metro karratuko. Lankarra ohikoa da Baztanen. Lankarra ur-tanta ttikiko prezipitazioa da (normalean 0,5 mm baino gutxiagoko diametrokoa).

Horren ondorioz, ibarra berdea eta hezea da, eta horiek ematen diote xarma berezia.

Clima

El Valle de Baztan pertenece a la llamada zona Cantábrica, caracterizada por un clima templado con profusión de lluvias todo el año y ligeras nevadas en los meses de invierno. De todas formas, las nevadas se centran en los montes y pueblos más altos del Valle de Baztan, mientras que en la depresión o zona central del valle, apenas nieva y si lo hace, es difícil que la nieve cuaje por lo que desaparece con rapidez.

La nubosidad alcanza índices muy elevados y el régimen de lluvias es muy intenso. Las precipitaciones son la característica más destacable del clima baztandarra: de 1400 a 1600 milímetros por m² al año. Es muy típica una lluvia de gotas finas (normalmente inferior a 0,5 mm de diámetro) llamado "lankarra",.

El resultado es un valle verde y húmedo, lo que le da un especial encanto al lugar.

Hauexek dira, urteko hamabi hilabeteetan banatuta, azken urteotako batez besteko prezipitazioak:

Urtarrila: 180 mm.
Otsaila: 130 mm.
Martxoa: 185 mm.
Apirila: 210 mm.
Maiatza: 130 mm.
Ekaina: 80 mm.
Uztaila: 75 mm.
Abuztua: 65 mm.
Iraila: 110 mm.
Urria: 125 mm.
Azaroa: 145 mm.
Abendua: 180 mm.

Esta es la media de precipitaciones de los últimos años repartidos en los doce meses del año:

Enero: *180 mm.*
Febrero: *130 mm.*
Marzo: *185 mm.*
Abril: *210 mm.*
Mayo: *130 mm.*
Junio: *80 mm.*
Julio: *75 mm.*
Agosto: *65 mm.*
Septiembre: *110 mm.*
Octubre: *125 mm.*
Noviembre: *145 mm.*
Diciembre: *180 mm.*

Behe-lainoak ibarran *Nieblas bajas en el valle*

Landaredia eta animaliak

Landaredia

Landaretza eskualde euro-siberiarreko probintzia atlantikokoa da. Gizakiak aipatu landaretza biziki suntsitu nahiz eraldatu aitzinetik, mendietan pagadiz, behealdean Quercus robur hariztiz, erdialdeetan gaztainondoz, eta bertze zuhaitz hostotsu kaduzifolioz (lizarrak eta hurritzak, errate baterako) osatuta zegoen.
Gaur egun, hedaduraz, pagoa da nagusi (7.500 hektarea, gutxi gorabehera). Ondoren, hedaduraz arras urruti, haritza eta gaztainondoak daude. Basoberritzea 2.100 hektarea ingurukoa izan da: hiru laurdenak pinuak, haritz amerikarra eta Japoniako laritza; batez ere, Otsondo, Alkurruntz eta Orabidea inguruan. Ibai inguruetan haltzak, sahatsak, makalak eta lizarrak aurki ditzakegu.

Flora y fauna

Flora

La vegetación natural pertenece a la provincia atlántica de la región eurosiberiana. Antes de su destrucción o transformación por el hombre, que ha sido intensa, estaría formada por hayedos, en las montañas, robledales de Quercus robur en las partes bajas, castañares en las intermedias y otras frondosas caducifolias como fresnos y avellanos.
El haya ocupa hoy el primer lugar por extensión (7.500 hectáreas aproximadamente), le siguen de muy lejos el roble y el castaño. La repoblación afecta a unas 2.100 hectáreas: tres cuartas partes de pino insigne, roble americano y alerce del Japón; sobre todo entre Otsondo, Alkurruntz y Orabidea. En los alrededores de los ríos, podemos encontrar alisos, sauces, chopos y fresnos.

Animaliak

Baztan Ibarrean aurki ditzakegun abereei dagokienez, behi, ardi eta zaldi-azienda nabarmentzen dira. Garai batean Baztan Ibarreko ekonomian nagusi ziren, baina azken hamarkadetan nekazaritzak indarra galdu du. Behi-aziendari dagokionez, erran beharra dugu esne-behiek edo suitzarrek lekua utzi dietela haragi-behiei, herriko behi pirinaiko gorriei alegia. Ardi-aziendari dagokionez, Baztan ibarrean ardi latxa da nagusi; izena arraza horretako ardiek duten artile zakarretik datorkio. Bi motakoak izaten ahal dira: ardi latxa muturbeltza eta ardi latxa muturgorria; bistan da, aurpegiaren koloreagatik bereizten direla.

Etxe-abereak alde batera utzita, Baztango mendi zabaletan animalia-espezie ugari dago: azeriak, basurdeak, oreinak, orkatzak, urtxintxak, eta abar. Bada bertze espezie bat, coipus izenekoa, jatorriz Hego Amerikakoa; tamaina handiko ugaztuna da, eta orain dela urte gutxi batzuk Baztan ibaiaren ertzetan kokatu zen Frantziako etxalde batetik ihes eginda. Espezie horren ugalketa moteldu bada ere, gaur egun, oraindik ere, ikusten ahal da bakarren bat ibaia zeharkatzen.

Baztan hegazti migratzaile ezberdinen pasalekua da, saiak edo putreak ugari badaude garrantzi haundiko kolonia ezberdinetan; eta bertan hezegune anitz badaude, denak babestutak, landaredia eta animali anitzarekin.

Fauna

En cuanto a los animales que pueden encontrarse en el Valle de Baztan, destaca el ganado bovino, ovino y caballar, ganado doméstico que antaño ocupaba un papel principal en la economía de Baztan pero venida a menos en las últimas décadas. En cuanto al ganado bovino, reseñar que las vacas de leche, o suizas, han dejado su sitio a las de raza pirenaica que se crían para la industria cárnica. En cuanto al ganado ovino, destacaremos que la raza predominante entre las ovejas del Valle de Baztan, es la oveja de raza latxa o basta, nombre que cogen por el tipo de lana burda de los ovinos de esta raza. Pueden ser de dos tipos, latxa de cara negra o latxa de cara rubia, diferenciadas obviamente por la coloración de la cara y extremidades.

Dejando a un lado los animales domésticos, entre la fauna salvaje que prolifera por los amplios montes baztandarras se encuentra una variedad muy amplia de animales que van desde los zorros, jabalíes, ciervos, corzos, ardillas, etc., hasta los coipus, mamíferos de considerable tamaño que aunque originarios de Sudamérica, se asentaron hace unos pocos años en las orillas del río Baztan procedentes de una granja francesa, y aunque su reproducción se ha visto frenada, todavía hoy se puede ver algún ejemplar cruzando el río.

Además, Baztan es lugar de paso de una gran variedad de aves, posee importantes colonias de buitres y gran cantidad de humedales, todos ellos protegidos, con gran variedad de fauna flora.

Landaredia eta animaliak
Flora y fauna

Bagoa
Haya

Bagatsak
Hayucos

Haritz amerikanoa
Roble americano

Bertako haritza
Roble autóctono

Gaztainondoa
Castaño

Gaztainak
Castañas

Paisaia kulturala *Paisaje cultural*

Ardi latxa
Oveja latxa

Pottokak
Pottokas

Saia
Buitre

Behi pirenaikoa
Vaca pirenaica

Basurdea
Jabalí

Orkatza
Corzo

Itxusiko Harriak *Peñas de Itxusi*

Natura babesguneak

Baztan-Bidasoa ibaia eta hainbat erreka, baita zohikaztegiak, hezeguneak, pagadi eta bazkaleku gehienak ere babestuak daude. Baztango babesguneen artean azpimarratu behar ditugu Aldude mendia, Belate, Aritzakun-Gorramendi-Urritzate, Orabideko erreka eta Artesiaga erreka. Gainera, Baztango herrialdea Bertizko parke naturalarekin muga egiten du.

Espacios naturales protegidos

Tanto el río Baztan-Bidasoa como muchos de sus afluentes están protegidos, así como las turberas, los humedales y gran parte de los hayedos y pastizales.
Destacan entre todos estos espacios protegidos el monte Aldude, Belate, Aritzakun-Gorramendi-Urritzate, la regata de Orabidea y la regata Artesiaga. Además, el municipio de Baztan hace muga con el Parque natural de Bertiz.

Artesiaga erreka *Regata Artesiaga*

Orabidea

Natura babesguneak
Espacios naturales protegidos

Ziga

Paisaia humanizatua

Baztango paisaia mendeetan zehar naturaren eta gizakiaren arteko harremanaren emaitza dugu. Historikoki Baztan nekazaritzari, burdingintzari eta merkataritzari lotuta bizi izan den herria da. Naturan dauden lehengaiak, mea, egurra, ikatza, burdina eta abar ere ustiatu eta landu izan dira bertan.

Paisaje humanizado

El paisaje de Baztan ha sido modelado a lo largo de muchos siglos por la relación entre el entorno natural y las actividades humanas. Históricamente la comarca de Baztan ha estado vinculada a la agricultura y a la ganadería, pero también a la producción de hierro y al comercio, explotando y trabajando muchas de las materias primas que da la naturaleza: madera, carbón, hierro…

Negusaroi (Irurita)

Iratze-metak *Metas de helecho*

Herri-lurrak

Baztanngo herri-lurren kultura arras hedatuta dago. Ohiturak markatzen duen bezala uda aldera abeltzainek behiak eta zaldiak mendiko bazkalekuetara eramaten dituzte.
Herri-lurren kultura Erdi Aroko garairik latzenetan sortu zen, goseteen eta izurriteen ondorioz gizarte eta ekonomia krisi larriak izan ziren garaietan.
Erdi Aroan saroiak lurrak antolatzeko sistema berezia ziren: lur eremua markatzeko orduan harri bat jartzen zen lur eremuaren erdian eta honen inguruan perimetro bat marrazten zen, lur eremu biribilak sortuz. Gaur egun lur eremu biribil horiek artaldeen babeslekuak izaten dira. Baztango toponimian saroiekin lotura dituzten izenak aurkitzen ditugu, Iruritako Negusaroi adibidez.

Los terrenos comunales

La cultura de los terrenos comunales está muy extendida en la comarca de Baztan. Tal y como marca la tradición, hacia el verano los ganaderos llevan su ganado a los pastizales de las montañas.
La cultura del comunal tiene su origen en la Edad Media, en una época dura de crisis económicas y sociales en la comarca.
En la Edad Media también había una forma especial de repartir las tierras llamada "saroiak": a la hora de marcar las parcelas se colocaba en el centro una piedra y se marcaba un perímetro a su alrededor, obteniendo así una parcela con forma circular. Hoy día, estas parcelas siguen siendo lugares para guardar y proteger a los rebaños. En la toponimia de Baztan encontramos nombres relacionados con estas "saroiak", como Negusaroi en Irurita.

Erdizko bazkalekua *Pastizales de Erdiz*

Nekazaritza

Nahiz eta Baztango lurrak arras emankorrak ez izan, ogia ereiten zen; baina artoa izan zen XVIII. mendean benetako nekazal iraultza, gosea desagerrarazi zuen eta zonaldea bultzatu. Orain dela guti arte artoa landatzeko lanabes ezberdinak erabiltzen ziren: lehenbizi arearekin (1) lurra garbitu eta prestatzen zen; goldearekin (2) lurrari buelta ematen zitzaion arnasa har zezan; arraldak (3) eta are zabalak (4) lurra harrotzen zuen eta gero zunbilak (5) zapatu. Azkenik markarekin (6) errekak egin eta artoa ereiten zen. Normalean, artoarekin batera banabarrak ere landatzen ziren.

Agricultura

Baztan no es un lugar propicio para sembrar trigo, y será a partir del siglo XVIII con la llegada del maíz cuando se desarrolle la agricultura, desapareciendo las hambrunas y trayendo la prosperidad. Para sembrar el maíz se utilizaban diferentes aperos: primero se limpiaba el terreno con la grada "area" (1), después se utilizaba el arado "goldea" (2) para arar y dar la vuelta a la tierra. A continuación se desmenuzaba la tierra con diferentes aperos dentados (3 y 4), se allanaba el terreno con el pisón (5) y por último se hacían surcos con la marca (6) en donde se sembraba el maíz. Era común sembrar alubias junto con el maíz.



1. Area

4. Are zabala

3. Arralda

2. Goldea

5. Zunbila

6. Marka

XIX. eta batez ere XX. mendean baserriko lanabesak industrializatu ziren: burdinez egiten ziren lantegi berexietan eta ez artisau modu batean. Burdinazko areak (7) eta matrazak (8) lurra harrotzeko zurezko area ordezkatu zuten, brabanak (9) goldeari, eta bai marka (10) bai artoa ereiteko makina (11) berritu ziren eta beren egiturak industrializatu ziren nabarmenki . Artoa eta ogia garbitzeko edo haizatzeko zetabearen ordez, haizatzeko makina bat (12) dugu lana erraztuko duena, nahiz eta esku-tresna izaten jarraitu.

Durante el siglo XIX y sobre todo durante el siglo XX los aperos de labranza se modernizan con la industrialización y son producidas en fábricas especializadas. Las gradas de hierro (7 y 8) que sirven para remover la tierra sustituyen a las de madera. Igualmente ocurre con el arado, sustituido por la brabana (9). También se modernizan la marca (10) y la sembradora de maíz (11) con una factura más industrial. Entre otras máquinas de la época está la máquina para aventar el trigo y el maíz, sustituyendo el cedazo por la aventadora (12), si bien ésta sigue siendo manual.

7. Burdinazko area

8. Matraza

9. Brabana

10. Marka

11. Artoa ereitekoa

12. Haizatzeko makina

Eskuzko lanabesak

Baserriko belar-lanetan erabiltzen diren tresna nagusiak honako hauek dira: sega (1) belarra edo iratzea mozteko, arraztelua (2), belarrari buelta emateko eta idortzeko, baita belaia arrastelatzeko ere; antzarraztelua (3), zamak mugitzeko eta kakola (4) belarra bizkarrean garraiatzeko.

Apero de labranza

En el caserío estos son los aperos que se utilizaban para cortar la hierba: la guadaña o "sega (1) para cortar hierba o helecho; "arraztelua" (2) o rastrillo para dar la vuelta a la hierba y secarlo, también para limpiar el prado; el "antzarraztelu" (3) para mover cargas y la "kakola" (4) para transportar hierba a la espalda.

Baratzean berriz, aitzurra (5), laia (6) eta hozpikoa (7) erabiltzen dira palarekin (8) batera lurra harrotzeko.
Segarria (9) segak (10) zorrozteko harria da, segapotoan (11) urarekin gordetzen dena. Ingudea (12) sega pikatzeko tresna da. Iratzea edo sasia mozteko sega arrazteluarekin (13) erabiltzen da.

En la huerta se utiliza la "aitzurra" (5), la "laia" (6) y "hozpikoa" (7) junto con la pala (8) para remover la tierra.
Para afilar la "sega" (9) se usa una piedra llamada "segarria" (10) que se guarda con agua en el "segapotoa" (11). También se utiliza una herramienta de metal llamado "ingudea" (12) para picar la hoja de la guadaña. Para cortar helecho o zarzas se utiliza una guadaña con rastrillo "sega arrazteluarekin" (13).

10. Segak

9. Segarria

11. Segapotoa

12. Ingudea

13. Sega arrazteluarekin

Basogintza

Baztango basoak (pagadi, harizti, gaztainondoak...) baztandarren babesguneak izan dira. Baztandarrak zuhaitz horietatik elikatu dira eta horien zurarekin eraikinak eta altzariak egin dituzte, baita horien egurrarekin etxeak berotu ere. XVII. mendean ia baso guziak desagerrarazi zituzten itsasontziak egiteko edo txondorretan (1) ikatza egiteko. Ikatza bertako burdinoletan erretzen zen. Gaur egungo basooihanak gizakiek mendeetan moldatutakoak dira, beren zerbitzura egokituak izan diren basoak.

Explotación forestal

Los bosques en Baztan (hayedos, robledales, castaños…) han sido refugio de sus habitantes. Han sido fuentes de alimento y con su madera han construido casas y muebles, así como combustible en los hogares. En el siglo XVII casi todos los bosques habían desaparecido por sobrexplotación,, se talaron gran cantidad de arboles para construir barcos y fabricar carbón en las carboneras o "txondorrak" (13). Hoy día los bosques son el resultado de siglos de explotación y la evolución de los servicios que nos da.

1. Txondorra

Aizkorarekin batera, basogintzan bertze lanabesak erabili dira: arpanak (2), tabloiak egiteko zerra (3). Zuhaitz enborrak bultzatzeko eta mugitzeko zapinoa (4) edo tranka erabiltzen zen, baita kalamarroa (5) ere.

Además del hacha, en las labores forestales se han utilizado diferentes herramientas: diferentes sierras como la sierra de tronzar o "arpana" (2) y la sierra para hacer tablones (3). Para arrastrar y empujar troncos se utilizaban herramientas como "zapinoa" (4) o "tranka", así como el "kalamarroa" (5).

4. Zapinoa

5. Kalamarroa

2. Arpanak



3. Tabloiak egiteko zerra *Sierra para cortar tablones*

Baztan lau urte-sasoietan

Urtean zehar Baztango paisaiak arras aldakorrak dira. Naturak sasoi bakoitzan bere ezaugarriak ditu: udaberrian loreak eta zuhaitzak berpizten dira, udako egun beroetan fruituak eta barazkiak franko dira, udazkeneko lehendabiziko egun hotzak eta hego haize epelak zuhaitzetako hostoak idortzen dituzte eta Baztan kolorez betetzen da; eta neguan natura lokartu, egunak ilundu eta hoztu egiten dira.
Bertze aldetik, bertako biztanleak naturaren erritmora egin dira eta sasoi bakoitzaren ezaugarriez baliatu dira. Berez, Baztanen hilabeteen izen gehienak baserriaren egutegiari lotuta daude.

Baztan en las cuatro estaciones

Los paisajes de Baztan cambian constantemente a lo largo del año. Cada estación tiene sus características: en primavera los arboles renacen y surgen gran cantidad de flores; en los días calurosos de verano la naturaleza madura; en otoño los primeros días fríos y el cálido viento del sur secan las hojas de los arboles llenando de color todo el Baztan; en invierno la naturaleza duerme y los días son más fríos y más oscuros.
Los habitantes del lugar se han adaptado al ritmo de la naturaleza y se han valido de las particularidades de cada estación. De hecho, en Baztan, muchos de los nombres de los meses en euskera hacen referencia a actividades agrícolas.

Udaberria *Primavera*

Uda *Verano*

Udazkena *Otoño*

Negua *Invierno*

Ondare etnografikoa
Patrimonio etnográfico

Baztango historia

Historiaurrea

Baztan megalito anitzen kokalekua da, antzinako hainbat oroitzapenek bere horretan iraun duten lurraldea. Ikerketa zientifikoek azaleratu dutenez, lehen baztandarrak haranean sortu, hil eta lurperatu ziren Kristo aitzineko XIII. mende aldera. Baztango arkeologia-aztarnategiek anitzetan piztu dute ikertzaileen arreta. Gure haranak hainbat historialari eta aditu ere erakarri ditu. Egun, zenbait baztandarrek jaso dute historialari haiek Baztango megalitismoarekiko erakutsi zuten grina, hala nola Josu Cabodebillak eta Itziar Zabalzak. Biek gidaliburu batean bildu eta katalogatu dituzte Baztango monumentu megalitiko gutziak.
Aztarna horietatik guzietatik honako hauek dira aipagarrienak, ezagunenak baitira: Urdintzeko monolitoa zein Otaltzuko eta Xolborroko trikuharriak (Legaten); Urkizteko, Luurzuko, Beoltringo, Autringo eta Zaluko trikuharriak eta Maistrugaineko eta Soalarko harrespilak. Horietaz gain, Urlegiko tumulua (Alkurruntzen) eta trikuharri hauek: Uztanborrokoa (Iruritan), Sorginetxoakoa (Erratzun), Errolanen pasabidekoa (Erratzu-Aldude geltokian) eta Oizakoa (699 metroko garaian, Elizondotik hurbil); gehi Otsondoko bertze bi, Legate inguruko bertze sei eta iruinarri bat; Lekarozkoa, Iparlako harrespila eta iruinarria, Elortako eta Aznabazterrako trikuharriak (Erratzun); Bagordiko iruinarria…

Historia de Baztan

Prehistoria

En Baztan encontramos una gran cantidad de monumentos megalíticos, recuerdos impasibles de épocas pretéritas que se encuentran salpicados por todo el territorio. Los estudios científicos han revelado que las primeras personas en Baztan vivieron, murieron y fueron enterradas aquí, en el valle, allá por el siglo XIII antes de Cristo. Los yacimientos arqueológicos en Baztan han despertado interés en muchas ocasiones, de personas historiadoras.
Actualmente, vecinos y vecinas del lugar como Josu Cabodevilla e Itziar Zabalza, se han encargado de recoger el guante lanzado por sus antecesores y antecesoras en el mundo del megalitismo en Baztan y han recopilado y catalogado en una guía todos los monumentos megalíticos existentes en el Valle de Baztan. De entre todos estos restos hay que destacar algunos, más conocidos que otros, como por ejemplo el monolito de Urdintz, los dólmenes de Otaltzu, Xolborroko harria (en Legate); Urkizte, Luurzu, Beoltrin, Autrin, Zalu y los cromlech de Maistrugain y Soalar. También encontramos el túmulo de Urlegi (en Alkurruntz), dólmenes en Uztanborro (en Irurita), Sorginetxoa (en Erratzu), Pas de Rolan (estación Erratzu-Alduides), Oiza (a 699 metros, cerca de Elizondo), dos en Otsondo, seis más y un menhir en el sector de Legate (en Lekaroz), el cromlech y el menhir de Iparla, los dólmenes de Elorta y Aznabazterra (en Erratzu), el menhir de Bagordi…

Erdi Aroa

1025. urtearen inguruan, Antso Handiak Baztango Jaurerria sortu zuen Semen Otsoanitzen alde; hau da, Jauregizarreko, Amaiurko eta Iruritako jauna zenaren alde. Alfontso I.ak Baztango erregetzat jo zuen bere burua, Zangozan 1132an jaulkitako dokumentu baten bidez. 1397ko maiatzaren 22an, Karlos III.ak, Elizondoko bizilagunek egindako eskariari erantzunez, hauxe adierazi zuen: *"… sean e finquen guardados e mantenidos en sus condiciones de fidalguía e infançonía, en que decían haber estado a perpetuo".*
Errege-ondarearekin 1440an izandako auzian, aziendendako errege-mendietako larreen petxak ordaintzeari buruzkoan, bertze behin berretsi zen kaparetasun eskubide hori. Baztango historiari buruzko ibilbide honetan Baztanek kondaira epikoetan utzitako aztarna ere aipatzeko modukoa da; errate baterako, Navas de Tolosako gudu ospetsuan parte hartu izana. Erraten denez, hortik dator gaur den egunean Baztango etxeetan ageri den armarria. Baina armarriaren jatorriaren gainean teoria bat baino gehiago daude.

Edad Media

Hacia 1025 Sancho el Mayor instituyó el señorío de Baztan en favor de Semén de Ochoániz, señor de Jauregizar, Amaiur e Irurita.
Alfonso I se tituló, en un documento expedido en Sangüesa en 1132, rey de Baztan. El 22 de mayo de 1397, Carlos III declaró en respuesta a una demanda de la vecindad de Elizondo que "sean e finquen guardados e mantenidos en sus condiciones de fidalguía e infançonía, en que decían haber estado a perpetuo".
En el pleito mantenido en 1440 con el patrimonio real sobre el pago de las pechas por el pasto de los ganados en los montes reales, volvió a reafirmarse o confirmarse este derecho de hidalguía. Es este transito de años, también cabe recordar el papel del Valle de Baztan en la historia, con leyendas épicas como las acontecidas en 1212 y la participación en la famosa batalla de las Navas de Tolosa, de donde se dice que proviene el escudo o blasón que hoy en día identifica a las casas del valle. Aunque sobre el origen del escudo encontramos más de una teoría.

Jauregizarreako armarria (Irurita)
Escudo de Jauregizarrea (Irurita)

Nafarroako Erresuma

Nafarroako Erresumaren historian erreferentzia da Baztan, batez ere Amaiurko gaztelua eta haren defentsaren gudarengatik. Amaiurkoa, Nafarroako Erresumako azken gotorlekuetako bat izan zen, Gaztelako Erresumak egindako konkistan eroritako azken defentsetako bat. Maiz entzuten da Nafarroak independentzia 1512an, Noaingo gudua eta gero, galdu zuela. Hala jo ohi da, baina jakina da Nafarroako koroaren jarraitzaile leial batzuek, buru egin nahian, Amaiurko Gazteluan bilatu zutela aterpea, Lapurdiko mugatik arras hurbil.

1522 arte iraun zuten gazteluan, urte hartan Gaztelako armadak menderatu baitzituen. Hala ere, nafar haiek arras gogor eutsi zioten gaztelarren erasoari, eta, gutiago izanda ere, hainbat bataila eta sarraski jasateko gauza izan ziren setioak iraun zuen; 200 nafarrak ziren, gaztelarrak aldiz, 10.000 eta hauek, askoz hobeki prestatuta zeuden.

Gaztelarrak Antzinako Erresuma menderatu eta gero, Cisneros kardinalak, hau da, Errege-erregina Katolikoen konfiantzagizonak, Nafarroak Gaztelari egindako erresistentzia gogora ekartzen zuten gotorleku edo defentsa-bastioi guztiak suntsitzeko agindu zuen. Hala, Amaiurko Gaztelua suntsitu egin zuten, Nafarroako bertze hainbat gaztelu bezala; zortzi edo bederatzi gazteluk bakarrik iraun zuten.

Reino de Navarra

El Valle de Baztan es un referente en la historia del Reino de Navarra. El castillo de Amaiur fue uno de los últimos bastiones de la independencia de Navarra, una de las últimas defensas en caer frente a la conquista llevada a cabo por el Reino de Castilla. Si bien se considera que Navarra perdió su independencia frente a Castilla en 1521, perdida la batalla de Noain, es sabido que todavía una hueste de fieles a la corona Navarra se atrincheró buscando refugio en el Castillo de Amaiur, muy cerca de la frontera con Lapurdi.

Resistieron en el castillo hasta 1522, año en el que la armada de Castilla consigue hacerse con el castillo. Fue tal la resistencia mostrada por la caballería navarra, que aun estando en minoría, fueron capaces de aguantar varias batallas y escabechinas. Las personas navarras eran 200, el grupo castellano sin embargo contaban con 10.000 personas mucho mejor preparadas.

Una vez que el Viejo Reino estaba bajo control castellano, el Cardenal Cisneros, hombre de confianza de los Reyes Católicos, mandó destruir o desmantelar toda aquella fortificación o baluarte defensivo que rememorara la resistencia de Navarra frente a Castilla. Así pues, el Castillo de Amaiur fue destruido, como otros tantos castillos navarros, siendo ocho o nueve los únicos que quedaron en pie.

XVII eta XVIII. mendeak

XVII. mendearen erdialdetik ia-ia XIX. mendearen hasiera artio eta gure haraneko bizi baldintza gogorrak kontutan hartuz, nafar batzuek Madrilera jo zuten bizimodu hobe baten bila beren noblezia tituluak erabiliz; haien artean baztandarrak ere baziren. Sorterritik alde egindako baztandar batzuk kargu garrantzitsuak eskuratzera iritsi ziren, bai Madrilgo gortean bai Ameriketan. Baztanek ministroez, militarrez, eliz pertsona, hornitzaileez eta merkatariez hornitu zuen Madrilgo gortea, eta, hain kopuru handia zegoen non Saltilloko Markesa Madril nafarrek (batik bat baztandarrek) menderatua zegoela erratera iritsi baitzen.

Horiek guztiak baztandarren gutxiengo bat ziren, haranean gelditu zirenak bertako bizimodu xumearekin jarraitu zuten aitzina, gehienak laborantza lanetan. Izurriteak gainditu behar izan zituzten, eta hori ez ezik gerra eta gosete handiak ere pairatu zituzten (batez ere 1793an, Konbentzio Gerran, eta ondoko Gerrate Napoleonikoetan, non frantsesak Baztan suntsitu zuten). Aipatzeko da halaber, Madrildik ere diru anitz jaso zutela haranean bertan gelditu ziren hainbatek eta horren adierazgarri Baztanen ikus daitekeen garai horretako arkitektura zibila dugu.

Konbentzio Gerran, 1793an, eta Gerrate Napoleonikoetan, frantsesak Baztan suntsitu zuten.

Siglos XVII y XVIII

Desde mediados del siglo XVII hasta casi los albores del XIX y padeciendo unas condiciones de vida bastante difíciles, algunos grupos de navarros emigraron a Madrid para buscar mejor fortuna haciendo uso de sus títulos de hidalguía. Entre ellos se encontraban numerosa población de Baztan que llegaron a ocupar posiciones de relieve, tanto en la Corte de Madrid como en América. Fue así que el Valle de Baztan comenzó a proveer al Reino de personal militar, dignidades eclesiásticas, ministro, asentistas y comercial, en un grado tal que indujo al Marqués del Saltillo a afirmar que Madrid estaba dominada por sociedad navarra, sobre todo oriundos de dicho valle.

Sin embargo ese fue el destino de solo una pequeña minoría de la población de Baztan. La inmensa mayoría se quedó en el valle y casi todo el pueblo siguió con la vida humilde que llevaban trabajando la tierra. Tuvieron que padecer pestes, hambrunas y guerras (sobre todo durante la Guerra de la Convención, en 1793, y poco después en las Guerras Napoleónicas, en los que los franceses arrasaron Baztan). También hay que señalar que muchas familias se beneficiaron de la fortuna de alguna persona familiar que emigró a Madrid y ello todavía hoy puede apreciarse la arquitectura civil de ésta época.

XIX eta XX. mendeak

Baztanek garrantzi handia izan zuen Lehen Karlistaldian. Fernando VII.a hil eta gero, Karlos infantea Baztanen barna sartu zen, Portugaldik heldu zelarik, erregegaitako. Eta, atera ere, hemen barna egin zen, Dantxarineko mugatik Frantziara ihes egin baitzuen. Bertzeak bertze, Arizkunenea karlistendako gudu biltoki garrantzitsua izan omen zen. Horren aitzinetik, gertaera latzak izan ziren. 1835ean, erraterako, Espoz Mina jeneralak Lekaroz erre zuen.

XIX-XX. mendeetan, emigrazio haundia egon zen Ameriketara. Itsasoaren bertzaldera jo zuten baztandar gehienak baserritarrak ziren, urrutian aberastu baino, haien sortetxeak mantentzeko diru sarrera bat bilatzen zutenak alegia. Emigrazio horrek batez ere Mexiko, Argentina eta Estatu Batuak izan zuten helmuga eta alde gindako gehienak artzaintzan aritu ziren.

Aipatzekoak dira 1913an Erratzun eta Elizondon izandako uholdeak, zalantzarik gabe, Baztanen inoiz gertatutako hondamendirik handienetako bat izan zirenak. 1936ean hasi zen Espainiako gerra zibilak eta ondorengo diktadura-aldi luzeak, vertze hainbat lekutan bezala, ondorio latzak ekarri zituen Baztanen ere. Euskara, abertzaleak eta ezkertiarrak jazarriak izan ziren. Horietariko anitzek ondoan dugun muga zeharkatzera behartuta ikusi zuten beren burua, bizirik segitzekotan. Bertzalde, alde egin ez zuten hainbat lagun preso hartu zituzten eta bertze anitz hil. Espainiar Estatuko bertze lekuetako preso errepublikarrak ere gure ekualdera ekarri zi-

Siglos XIX y XX

Baztan tuvo mucha presencia en la Primera Guerra Carlista. El infante Don Carlos entró a través de este valle, proveniente de Portugal, una vez muerto Fernando VII, como aspirante al trono. Lo mismo que lo abandonó, pues huyó a Francia por la frontera de Dantxarinea. Antes, hubo trágicos episodios como el terrible incendio de Lekaroz en 1835 ordenado por el General Espoz y Mina.

En los siglos XIX-XX hubo mucha emigración a América. La mayoría de las personas que emigraron eran baztandarras del entorno rural, gente labradora o "baserritarras" de los caseríos, que más que enriquecerse sólo buscaba un modo de sustento para sus casas natales. Esta emigración se dio fundamentalmente a México, Argentina y a los diferentes estados de Estados Unidos. Casi todas las personas trabajaron en el pastoreo.

En las inundaciones de 1913 Erratzu y Elizondo sufrieron una de las mayores catástrofes jamás vividas en este valle.

La guerra civil comenzada en 1936 y los años de dictadura franquista que le siguieron, como en otros tantos lugares, tuvieron consecuencias muy duras para Baztan. El euskara, la población abertzale (patriotas vascos) y los grupos izquierdistas de la zona fueron perseguidos por los franquistas y muchos de ellos y ellas, con tal de sobrevivir, se vieron obligados y obligadas a cruzar la frontera. Personas de las que no se exiliaron fueron apresadas y otras tantas asesinadas. Muchas personas presas republicanas del Es-

tuzten lan behartuak egitera. Batez ere mendi errepideak eraiki behar izan zituzten Francoren erregimenaren esklabo gisa. Artesiagako errepidea, Irurita eta Eugi lotzen dituena erraterako, Francoren agintaldiko esklaboek sortua da. Bortxazko langileek pikotxaren kolpez kolpe ireki zuten NA-1740 errepidea. Egun, horien omenez oroitarri bat dago (Baztango Udalaren, Iruritako herriaren, Memoriaren Bideak elkartearen eta Geronimo de Uztariz Institutuaren ekimenez paratua).

Autarkia ezarri eta mugak itxi zirenez, baztandar anitzek bizimodua ateratzeko bide alternatiboa bilatu zuten: kontrabandoa. Delitu hura arte bihurtu zuten Baztango bizilagunek, hamaika modu asmatu baitzituzten mendiz eta eskuarki gauez garraiatutako salgaiak (parpailak, errodamenduak, aziendak eta abar) helmugara ailegarazteko. Hala, jornal gehigarria irabazten zuten, garai hartako bizimodu gogorrari buru egiteko. Lan gogorra zen kontrabandistarena, gehienak herritar apalak izanik diru gehigarri hori oso txikia izaten zen, egiazko botere eta dirua, gutxi batzuen eskuetan baitzegoen.

tado español también fueron traídas a nuestro valle forzosamente para realizar diferentes trabajos. Sobre todo tuvieron que realizar carreteras de montaña como esclavos del régimen franquista. Así se construyó la carretera de Artesiaga, que une Irurita y Eugi. Los grupos de presos tuvieron que abrir a golpe de pico la carretera NA-1740. Actualmente, en memoria de todos ellos podemos ver una escultura conmemorativa (una iniciativa del Ayuntamiento de Baztan, el pueblo de Irurita, Memoriaren Bideak y el Instituto Geronimo de Uztariz).

Con la autarquía y el cierre de fronteras, se recurrió a un modo alternativo de ganarse la vida para la mayoría de las gentes del valle: el contrabando. Un delito hecho arte por la población de Baztan que se las ingeniaban de mil maneras distintas para eludir los controles y hacer llegar las mercancías que transportaban de noche (puntillas, rodamientos, ganado…) a sus lugares de destino. Era la manera de ganarse un sobresueldo dado las duras circunstancias de vida que había en la época. Era un trabajo duro que fundamentalmente era llevado a cabo por gente humilde que solo conseguía ganar una pequeña cantidad de dinero. El dinero y poder real estaba en manos de pocas personas.

Frankismoaren esklaboei oroigarria
Homenaje a los esclavos del franquismo

N-121A errepidea *Carretera N-121A*

Baztan: Europako atea

Baztango ibarrak mendiz inguratuak egoteaz gain, mendi tarteko lepoak garrantzi handiko pausu estrategikoak edo ateak izan dira. Horrela, Belate , Otsondo edota Izpegiko lepoek ez dituzte lotzen Baztan eta bertze haranak bakarrik, baita penintsula eta kontinentea ere. Gainera, Baztan-Bidasoa ibaia ere lehen mailako ate bat izan zen eta gaur egun oraindik horrela da N-121 errepidearekin (adibidez, 1916an trena Baztanerat ailegatu zen. Trenbideak Irun eta Elizondo lotzen zituen eta tartean herri anitzetan tren geltokiak eraikin ziren. Hala ere, 1956an Bidasoko trenak ibiltzeari utzi zion eta harez geroztik tren geltoki guztiak desagertuz joan dira).
Ate horiek garrantzi handia izan dute zonaldeko historian; merkataritzan (bai legezkoa, bai kontrabandoa), burdinaren industrian, erromesen bidaietan… Euro-

Baztan: puerta de Europa

Aunque el valle de Baztan está rodeado de montañas, los collados que hay entre las mismas han funcionado como puertas y puntos estratégicos. Así, los puertos de montaña de Belate, Otsondo o Izpegi, no solo unen el valle de Baztan con los valles vecinos, también unen la península con el continente. Además, el propio río Baztan-Bidasoa ha sido un paso de primer orden, y los sigue siendo con la carretera N-121 (por ejemplo, en 1916 el ferrocarril llegó a Baztan. El tren unía Elizondo con Irun y se construyeron apeaderos en muchos pueblos. En 1956 el tren del Bidasoa es desmantelado y todos las estaciones y apeaderos desaparecieron).
Estos pasos han tenido una gran importancia histórica en el desarrollo del comercio (tanto en el comercio legal como en el contrabando), en el desarrollo de la

pan barna mugaz gaindiko halako harremanak bulkatu zituzten. Gerra garaian kokapen estrategikoak izan ziren eta zonaldean ikusten ahal ditugu garai ezberdinetako gotorleku militarrak: Erdi Aroko gazteluen aztarnak (Amaiur), XIX. mendeko gotorlekuak (Belate), XX. mendeko bunkerrak... baita Gerra Hotzaren denboretan Estatu Batuetako militarrak Gorramendin eraikitako basearen aztarnak. Han zaintza eta komunikazio lanak egiten ziren. Baztandarrek ustekabean eta harrituta ikusten zuten nola ailegatzen ziren lehen jeepak eta estatubatuarrak gure lurretara.

industria del hierro, en las rutas de peregrinaciones, como escondite de refugiados… ya que impulsaron una mayor relación más allá de las fronteras de Europa. Por su valor estratégico durante las guerras, aquí encontramos gran cantidad de construcciones militares de diferentes épocas: castillos medievales (Amaiur), fuertes del siglo XIX (Belate), bunkers del siglo XX... incluso los restos de una base militar estadounidense construido en Gorramendi en plena Guerra Fría que realizaba labores de vigilancia y comunicación para la sorpresa y asombro de las personas del lugar, que veían llegar los primeros jeeps y población norteamericana a nuestras tierras.

Belateko gaztelua (XIX. mendeko gotorlekua) *Castillo de Belate (Fuerte del siglo XIX)*

Baztango armarria

Baztango armarria, oinarrian, xaketaularen itxurakoa da eta laukiak beltzak eta zilar kolorekoak dira. Nafarroako zaharrenetako eta ezagunenetakoa da. Inguruan hainbat apaingarri izaten ahal ditu eta goitiko aldean, armarriaren buru, zaldun baten kasketa.

Jatorriari buruz, hipotesi anitz daude eta, kasu gehienetan, elezaharren edo istorioren baten inguruan sortuak dira. Horrek, armarri hori Baztango ia etxe guztietan agertzea are garrantzitsuagoa egiten du. Teoria horietako batek 1212. urtera eramaten gaitu, Navas de Tolosako gudua izan zen garaira. Gerra horren ondotik, Antso VII. Azkarrak, Nafarroako Erregek, xake-taularen itxurako armarria eman omen zien baztandarrei, gerra-zelaian Erregeri laguntzeko izandako jarrera saritze aldera. Teoria zaharrago batek Antso Abarkaren erregealdia (970 – 994) du abiaunea. Antso Abarka Iruñeko Errege

Escudo de Baztan

El escudo de Baztan se trata de un ajedrezado en su base, un jaquelado de plata y sable, uno de los distintivos más antiguos y conocidos de toda Navarra, que puede disponer de distinta ornamentación a su alrededor, y que en su parte alta aparece comúnmente un yelmo o cabeza de caballero que lo culmina.

Las hipótesis sobre su origen son numerosas y casi siempre giran alrededor de alguna leyenda o historia que hace que la presencia de este escudo en la inmensa mayoría de fachadas de las edificaciones baztandarras cobre mayor importancia si cabe. Una de estas teorías nos lleva al año 1212, donde en la batalla de las Navas de Tolosa el Rey de Navarra, Sancho VII el Fuerte, otorga el ajedrezado a la población de Baztan para recompensarlos por su comportamiento en el campo de batalla. Otra teoría más antigua todavía nos remonta al reinado de Don Sancho Abarca (970 – 994),

zelarik, frantziarrek atxilo hartu zuten eta, erraten denez, hainbat "jaunak" askatu zuten. Jaun horien artean Morentingoa, Oibarkoa, Lodosakoa bai eta Alfontso Gonzalez Baztangoa ere omen zeuden. Azken honi Erregeak xake bat eman omen zion oparitako eta ordutik Baztango ikurrik kutunenetarikoa izan da. Nolanahi ere, haren jatorria dena delakoa dela, Baztango armarria inguru honetako edozein erakinetako nahitaezko osagai bihurtu da, etxe noblea nahiz baserria izan, aberatsa nahiz pobrea. Familiako norbait hiltzen zelarik, armarria zapi beltz batez estaltzen zuten.

que siendo Rey de Pamplona cayó preso de los franceses. Se dice que lo liberaron unos cuantos "seniores", como el de Morentín, Aybar y Lodosa. Y entre esos señores también se encontraba Alfonso Gonzalez de Baztan, que recibió como gratificación del Rey "un ajedrez", pasando a formar parte como uno de los símbolos más apreciados del valle. Sea como fuere el origen que tenga, el escudo o blasón del Valle de Baztan, se ha convertido en uno de los elementos indispensables en toda edificación baztandarra, sea noble o caserío, rico o pobre. Cuando alguna persona de la casa fallecía, el escudo se cubría con un paño negro.

Ondare etnografikoa *Patrimonio etnográfico*

Maizterrak eta agotak

Baztango biztanle guztiak ez ziren herritarrak. Herritarrak beren etxeen jabeak ziren, batzarretan parte hartzen zuten eta Baztango herri-lurrak eta basoak lantzeko eskubidea zuten. XVII. mendetik aitzina gero eta maizter gehiago daude Baztanen: etxeen jabeak ez ziren eta herritar batendako lan egiten zuten familiak, batez ere nekazaritza lanetan.

Baztango maizterrik ezagunenak agotak ziren. Agoten lehen aztarnak dagoeneko XIII. mendeko dokumentuetan ageri zaizkigu. Pirinioetako haranetan bizi izan ziren sei mendez komunitate bereizi gisa, eta inguruko herri guztiek baztertu zituzten. Haien ospe txarreko jatorriaren inguruan hainbat hipotesi daude (gehienak kondairak dira): zenbaiten ustez, legenardunen ondorengoak ziren eta horregatik baztertzen zituzten, kutsatzearen beldur baitziren; bertze batzuen ustez, berriz, kataroen ondorengoak edo godoen ondorengoak ziren, larruzurikoak eta ilehoriak zirelakoz. Agoten ezaugarritako belarri gingilik ez zutela edo hura belarriari atxikia zutela.

Orobat, Baztanen arrazoi sozioekonomikoengatik baztertu zituztela ere aipatu izan da: beren etxeen jabeak ez zirenez ez ziren herritarrak, ez zieten herri-lurrak lantzen uzten, ezin zuten errota erabili, elizetara sartzeko ate bereziak zituzten (agot ateak), eta beti tenpluen gibeleko aldean jarri behar izaten zuten. Gainera, Baztango agot gehienak Urtsuako jaunaren maizterrak ziren. Arizkungo Bozate

"Maizterrak" y agotes

No todos los habitantes eran vecinos en Baztan. Los vecinos eran dueños de sus casas, participaban en las reuniones populares o "batzarres" y tenían derecho de explotar y trabajar las tierras y bosques comunales. A partir del siglo XVII hay cada vez más habitantes que no eran vecinos sino "maizterrak", aquelos que no tenían casa propia y trabajaban para los vecinos, a menudo en labores agrícolas.

En Baztan los "maizterras" más famosos eran los agotes. Los primeros indicios de los agotes se hallan en documentos del siglo XIII. Vivieron en los valles de los Pirineos durante seis siglos como una comunidad diferente, discriminada por todos los pueblos de alrededor. Las hipótesis sobre el origen de su mala fama son diversas. Para una gente, descendían de personas leprosas y por eso se les discriminaba, por miedo al contagio. Para otras, eran descendientes de la población de godos, por su piel blanca y pelo rubio. Como gran distintivo físico de la población agote, se decía que no tenían lóbulo o que lo tenían pegado a la oreja. Fuera el motivo que fuera, también se baraja que la exclusión podría haber sido por motivos económicos. Y más en el Valle de Baztan, donde se instalaron y dieron forma al barrio de Bozate en Arizkun, pues querían obtener los derechos vecinales y la hidalguía a lo que al parecer, la vecindad del Valle se oponían al "no cumplir los agotes los requisitos de ser un lugareño o tener una sangre pura". Eran, por lo tanto,

auzoa sortu zuten eta auzo-eskubideak eta kaparetasuna lortu nahi izan zituzten. Baztandarrek ez zuten horrelakorik onartzen, agotek ez baitzituzten horiek lortzeko baldintzak betetzen, hau da, bertakoak eta odol garbikoak izatea. Beraz, erabat baztertuta zeuden eta ia-ia ez zuten eskubiderik.

Nolabait ere bizirik irauteko, agotek artisau-lanak bakarrik egiten ahal zituzten (uste baitzen zuraren edo harriaren bidez ez zutela eritasunik kutsatzen), baina, geroago, igeltsero, artisau edo musikari ere jardun zuten. Izan ere, arras trebeak izan omen ziren eskulanetan. Bozateko arkitektura ederra eta hango etxe bereizgarriak ikustea bertzerik ez dago horretaz ohartzeko. Bizi ziren lekuan bizi-baldintzak sobera gogortzen zirelarik, bizilekua aldatzen zuten. Urteek eta mendeek aitzina egin ahala, baldintzak samurtuz joan ziren eta, hala, agotak beren bizilekuetan finkatuz joan ziren. Baztanen ere, halaxe gertatu zen.

una gente absolutamente discriminada y sin apenas derechos. No se les permitía labrar las tierras comunales, no podían utilizar el molino, tenían puertas exclusivas en las iglesias llamadas "Agote ateak", y siempre tenían que sentarse en las filas traseras de los templos.

Para sobrevivir de alguna manera, el pueblo agote únicamente podía desempeñar labores de matarifes o carpinteros (ya que se suponía que la madera dificultaba la transmisión de enfermedades) pero más tarde también ejercieron como personal de albañilería, artesanía o de música. Y de hecho debían de ser muy buenos y buenas en los trabajos manuales pues no hay más que ver qué arquitectura tan bella consiguieron levantar en Bozate con sus características casas. Se movían según las condiciones se iban endureciendo en el lugar en el que estaban. Con el paso del tiempo estas condiciones fueron suavizándose y la gente agote poco a poco fueron asentándose allá donde estaban, también en Baztan. Aún y todo, en Bozate todavía a principios del siglo XX el estigma se mantenía y este grupo seguía discriminado. Hoy en día hay familias que conservan el recuerdo de su origen agote.

Bozate (Arizkun)

Amaiur

Baztan eta Donejakue Bidea

Baztan ibarretik Pirinio Atlantikoak zeharkatzen ditu Donejakue bidearen adar zaharretako batek. Baionako kaian lehorreratzen zirenek erabiltzen zuten bide hura, Iruñerantz zihoazen merkatari karabanekin elkartzeko. Hamarraldietan ahaztua, indar handiz berpiztu da bide hori azken urteotan, beharbada ibilbide samurra duelako edo hango bazterretako natura ederra delako. Sorginkerien oihartzunak gordetzen ditu, eta larreak, basoak, jauregiak eta baserriak tartekatzen dira han.

Baztan y el Camino de Santiago

Uno de los antiguos ramales del Camino de Santiago atraviesa los Pirineos Atlánticos por el valle de Baztan. Una vía utilizada por aquellos que desembarcaban en el puerto de Bayona para incorporarse a las caravanas de mercaderes que se dirigían a Pamplona. Olvidada durante décadas, esta ruta ha resurgido con fuerza en los últimos años, quizás por su suave trazado o por la belleza natural de sus rincones. Un entorno con ecos de brujería en el que se alternan pastos y bosques, palacios y caseríos.

Baiona
Amaiur
Arpilkueta
Erratzu
Ariakun
Lekaroz
Elbete
Arraioz
Elizondo
Gartzain
Ziga
Ano
Almandoz
Berroeta
Iruñea / Pamplona
Santiago

Bikuña (Arraioz)
XV. mendea
Siglo XV

Puriosenea (Elizondo)
XVI. mendea
Siglo XVI

Jarola (Elbete)
XVII. mendea
Siglo XVII

Baztango Etxea

Baztango etxeak bertako klima heze eta euritsurat egokitzen diren eraikinak dira: planta karratu edo errektangularra, hiru edo lau solairu eta teila arabiarrez eta zurezko teilatu-hegal handiz estalitako euriteilatua dute. Antzina gisua eta lur apur bat nahasiz haraneko etxeen paretak xuritzen ziren, paretak hezetasunetik babesteko eta hormak higienizatzeko. Etxeko leihoak, ateak, izkinak eta solairuak bereizteko inposta-lerro batzuetan tokiko harria agerian uzten da.

Etxe tradizionalak hiru atal ditu: beheitia (aziendendako heia edo ukuilua dena), goitia edo solairu noblea (hor sukaldea, jangela, sala nagusia eta logelak egoten ziren) eta teilatupea (sabaia ere deitua), jakitokitako erabiltzen zena azienda baztkatzeko belarra sartzeko lekua (kasu batzuetan, suteak saihesteko, belarra ez zen sabaian gordetzen eta belar-metak egiten

La casa en Baztan

Las casas en Baztan son construcciones adaptadas al clima húmedo y lluvioso del lugar: planta rectangular, tres o cuatro plantas y tejados con grande aleros de madera y cubiertos con teja árabe. Antiguamente los muros se enlucían con cal y un poco de tierra, protegiéndolos así de la humedad y también con fines higiénicos. Se dejan al descubierto las piedras bien labradas de las esquinas y el de los vanos de las casas, puertas y ventanas.

La casa tradicional tiene tres plantas: en la planta baja están las cuadras para el ganado, la primera planta o planta noble es la destinada a vivienda (aquí se encuentran la cocina, el comedor, la sala principal y los dormitorios), y en la parte superior el desván o "sabai", espacio destinado a despensa y el lugar donde se guarda la hierba seca para alimentar al ganado en invierno (a veces, para evitar incendios, la hierba se

dira etxeko larrainan).
Normalean bi uretako (batzuetan lau uretako) teilatu handiak estaltzen du etxea, ateratzen diren zurezko teilatu-hegalek, sarritan oparo apaindurik, etxearen forua eta jabetza markatzen zuten. Etxearen banaketak eskema arrazionalari jarraitzen dio hein batean: ukuiluko animalien beroak eta teilatupean gordetako belar idorraren efektu isolatzaileak pertsonak bizi diren lehen solairuko giroa neguan pixka bat atseginago egiten dute.
Etxearen izena edo oikonimoa bertan bizi direnen izen-abizenak baino garrantzisuagoa izaten ohi da, eta toponimiari, etxearen kokapenari (Goienetxea, kasu), etxean burutzen zen edo bertan bizi zenaren lanbideari (Sastrearena, Errotazarra, erraterako) etxearen jabearen izenari (Mikelerena, adibidez) edo etxearen ezaugarriari (Arretxea, Urdinenea, erraterako) erreferentzia egiten ohi dio.

guarda en forma de "belar-metak" en la era de casa).
Normalmente los tejados son a dos aguas (en algunos casos son a cuatro) y son de gran tamaño, con grandes aleros ricamente adornados que marcaban el fuero y propiedad de la casa. La división de la casa responde también a un esquema racional: el calor que generan los animales de la cuadra y el efecto aislante de la hierba bajo el tejado hacen que la vivienda sea más agradable y templado en invierno.
La oiconimia o nombre de la casa era más importante que los apellidos de quienes lo habitaban. Suelen hacer referencia a la toponimia o localización de la casa (Goienetxe, la casa de arriba), oficio que se practicaba en la casa o que practicaba su dueño (Sastrearena, casa del sastre; Errotazarra, molino viejo), al nombre de quién lo construyó (Mikelerena, casa de Mikel) o a alguna característica de la casa (Arretxea, casa de piedra; Urdinenea, casa azulada).

Maxkotarnea (Lekaroz)

Baseeriak Iruritan Caseríos en Irurita

Baztango herrien hirigintza

Baztango hirigintzak nekazaritza munduarekin harreman zuzena dauka. Etxearen inguruan etxeko landak, baratzeak eta belaiak daudenez, bertako herriguneak arras diseminatuta daude. Karrikak irregularrak dira eta bideen trazatua jarraitzen dute (Amaiur honen eredu nabarmena da, karrika nagusi bakarra dauka eta herriko etxeak Erdi Aroko Baztango bide nagusiaren ertzean daude). Bertako herriko plazak ere irregularrak dira, karrika ezberdinen loturaren emaitza. Plazak funtzio ezberdinak betetzen zituen: ludikoa, erlijiosoa (prozesioak) eta herri gehienetan laxoan eta bertze kirol batzuk egiten ziren lekua.

Etxeak banakako unitate bezala eginak dira, batzuen eta bertzeen arteko tarteekin, baserria zabaltzea ahalbidetzen duena. Herrigune konpaktuagoetako kasuan, es-

Urbanismo en los pueblos de Baztan

El urbanismo de los pueblos de Baztan está directamente relacionado con su entorno agropecuario. El hecho de que muchas casas estén rodeadas de huertas y prados hacen que los núcleos urbanos estén muy diseminados. Las calles son irregulares y suelen seguir el trazado de los caminos (el caso de Amaiur es uno de los más claros, en dónde hay una única calle principal y las casas del pueblo se encuentran a los lados de la vía medieval más importante de Baztan). Las plazas de los pueblos también son muy irregulares, resultados de la unión de varias calles. Las plazas tenían varias funciones: lúdico, religioso (procesiones) y en muchos de los pueblos era el lugar donde se jugaba a "laxoa" y otros deportes.

Las casas están construidas como unidades, habiendo la posibilidad de extender

trata (estraka) izeneko espazioen garapena izaten da, etxeen arteko hutsune estu ireki edo itxiak. Tradizionalki espazio hauen zabalera etxeetako foruen araberakoa zen, teilatu-hegala muga zelarik. Etxea zabaltzen bazen, teilatu-hegalak ezin zuen barridearen teilatu-hegala gainditu edo horren gainean jarri.
Nahiz eta XX. mendean etxe-blokeak eta eraikin modernoak egin, hirigintza aldetik gutxi aldatu zen; Elizondoko auzoberriak izan ziren ia kasu bakarrak non hirigintza tradizionala baztertua izan zen.

huertas entre ellas. En el caso de núcleos urbanos más compactos, entre casa y casa hay un estrecho hueco o callejuela llamado "estraka", la cual puede estar abierta o cerrada. Tradicionalmente el ancho de este espacio estaba relacionado con los fueros de las casas, marcados por los aleros de las mismas. En caso de recrecer la casa, el alero no podía sobresalir o sobrepasar el alero de la casa vecina.
Aunque en el siglo XX se van a construir bloques de pisos modernos, poco cambió el modelo urbano local. Casi los únicos casos en los que no se respetó este modelo fueron algunos barrios de Elizondo.

Lekaroz

Elizondo

Erratzu

Etxebertzea (Arizkun). Larraina *Era*

Etxea: familiaren ekoizpen unitatea

Baserria ez zen familien bizilekua bakarrik, baita lantegia eta produkzio unitatea ere.
Historikoki, bertako jarduera nagusiak nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza izan ziren, bai eta eraldaketa jarduera batzuk ere (hala nola sagardogintza). Etxearen eraikinarekin batera zenbatu behar ziren inguruko lur eremuak eta azienda. Baserrian azienda elikatzeko belarra eta lastoa, iratzea (azpigarri moduan), ogia, garagarra, barazkiak, fruitu gozoak (sagarrak, bereziki), gaztainak, giltxaurrak eta hurrak ekoizten ziren. Gasna, urdaiazpikoak eta hestekiak ere prestatu izan dira. Baserrian behiak, ardiak, ahuntzak eta

La casa: unidad de producción familiar

La casa no es solo la vivienda de la familia, también es un lugar de trabajo y una unidad de producción familiar.
Históricamente la principal fuente de subsistencia del lugar fueron la agricultura y la ganadería, así como la elaboración de ciertos productos (la sidra, por ejemplo). Así, hay que añadir al edificio de la casa los terrenos y los animales. En la casa se guarda la hierba seca para alimentar el ganado en invierno, el helecho para las cuadras y el estiércol, se cultivaba el trigo y el maíz, las plantas frutales (especialmente los manzanos), verduras y hortalizas, castaños, nogales y avellanos. En la casa se producía sidra, embutidos, quesos

zaldiak ziren ohiko animaliak. Oiloak, ahateak, usoak eta bertzelako hegaztiak, untxiak eta zerriak ere edukitzen ziren.
Kasu anitzetan, autarkia ekonomikoan bizi zen unitatea izan da etxea eta horretarako ogia egin, oihalgintza eta bertze jarduera batzuk ere bertan burutu izan dira.
Horretaz gain, baserriko produkzioaren zati bat merkatuan edo ferietan saltzen zen.

y otros productos alimentarios. También encontramos en la casa vacas, ovejas, cabras y caballos, así como gallinas, patos, palomas y otros animales domésticos. En muchos casos la casa era una unidad que funcionaba como una verdadera autarquía económica. Para ello se hacían diferentes trabajos en él, desde el pan hasta labores textiles. Además, un parte de lo que se producía en casa se vendía en el mercado o las ferias.

Baserria eta inguruko borda, belaiak, baratza, larraska eta arto-landa.
Caserío con borda, prados, huerta, bosque y maizal a su alrededor.



Etxearen banaketa eta estruktura

1. Bizkar-zura
2. Soliboa
3. Gaitzegia
4. Gapiroa
5. Zubia (Asta)
6. Ostikoa
7. Astazaldia
8. Pilarea
9. Zapela
10. Zapata
11. Petrala
12. Soliboa
13. Solairua
14. Infernua
15. Lurreko sua
16. Ziminia
17. Lata (Ohola)
18. Teilatua
19. Bizkar-teila
20. Bazka-zuloa (Belar-zuloa, Kukua)

División y estructura de la casa

1. Bizkar-zura
2. Soliboa (Solivo)
3. Gaitzegia
4. Gapiroa
5. Zubia (Asta)
6. Ostikoa
7. Astazaldia
8. Pilarea (Pilar)
9. Zapela
10. Zapata
11. Petrala
12. Soliboa (Solivo)
13. Solairua
14. Infernua
15. Lurreko sua (Fuego bajo)
16. Ziminia (Chimenea)
17. Lata
18. Teilatua (Tejado)
19. Bizkar-teila
20. Bazka-zuloa

Heia (Arditegia)
Cuadra para ovejas

Heiak

Heiak baserrian aurkitzen ziren: arditegia, behitegia, zerritegia... Behiak eta ardiak segaleran (1) eta ganbelan (2) jaten zuten (segalera belarra jartzen den sarea da eta ganbela egurrezko aska bat); zerriak berriz, zerri azpilan (3).

Cuadras

Vacas, ovejas y cerdos tenían sus cuadras en el caserío. Vacas y ovejas comían en pesebres compuestos por "segalera" (1), reja en donde se ponía la hierba, y "ganbela", (2), una especie de artesa y los cerdos en la artesa o "zerri azpila" (3).

2. Segalera

3. Ganbela

1. Zerri azpila

Behorrak, mandoak eta idiak ziren baserriko lanabes gehienak tiratzen zituztenak. Lerak (4), adibidez, behorrek edo idiek tiratuta, Baztango lur malkartsuetan zehar kargak eramateko erabiltzen ziren ziren, bai zirrikekin baita lera-ferrekin ere, azken hauek maldetan eta lera bideetan erabiltzen zirelarik. Xalma (5) zamak astoaren edo mandoaren gainean garraiatzeko erabiltzen zen.
Aziendaren bazka xehatzeko makina ezberdinak baziren: arbia xehatzeko (6) edo eta belarra eta lastoa xehatzeko (7).

Yeguas, mulos y bueyes eran los animales que tiraban de los aperos de labranza. Las leras (4), un tipo de carro a modo de trineo que en este caso está provisto de ruedas, eran tiradas por yeguas y bueyes por los caminos o arrastradas por los pronunciados terrenos del lugar. Los burros y las mulas cargaban con la "xalma" (5) o bastidor en la que transportaban todo tipo de materiales.
Para picar la comida del ganado se usaban picadoras de nabos (6) así como de hierba y paja (7).

4. Lera

6. Arbia xehatzekoa

5. Xalma

7. Lastoa xehatzekoa

Uztarria (8) abereek gurdi edo lanabesei tira egiteko erabiltzen den zurezko pieza da, bi abere lotzeko. Bi belarri, lau adarzulo eta bi kopetako ditu. Akuilua (9) makila luze eta buru-eztenduna da, abereei eragiteko erabiltzen dena. Kleska (10), brontzeak (11) eta ardi-joarea (12) abereak ezagutzeko erabiltzen diren arran edo ezkil txikiak bere koilareakin dira.

El yugo o "uztarria" (8) es una pieza de madera con la que se engancha el carro o apero a dos animales. Tiene dos orejas, cuatro agujeros para cuernos y dos frontales. "Akuilua" (9) es una vara larga rematada con un clavo para azuzar a los animales. "Kleska" (10), "Brontzeak" (11) y "ardi-joarea" (12) son pequeñas campanas con badajo que sirven para localizar y reconocer al ganado.



Sukaldea

Etxebizitza bi zatitan banatzen zen: sukaldea, eta logelak. Sukaldea lehen solairuan zegoen eta gehienetan eraikinaren aurrealdeko zokoan, baserriaren bihotza zen eta sukaldatu eta bertze lanak egin ezezik, han zegoen batez ere, hizketarako gunea.

Cocina

La vivienda se dividía en dos partes: la cocina y los dormitorios. La cocina se situaba en la primera planta, en un rincón hacia la fachada principal. La cocina era el corazón del caserío, aquí no solo se cocinaba y se hacían otras labores, también era punto de encuentro de la familia.

Sukaldean lurreko sua aurkitzen da, etxea berotzeko eta sukaldatzeko sutondoa. Laratza (1) sutondoan kebidetik zintzilik dagoen katea da, pertzak ezartzeko erabiltzen dena. Talo burdinak (2) burdinazko oinarri borobil gidertunak dira, taloak lurreko suan egiteko erabiltzen zirenak. Eltze-hankak (3) eta trebedea (4) eltzeak lurreko suan kontzeko burdinak dira. Padera (5) gaztainak lurreko suan erretzeko tresna da.

En la cocina encontramos el fuego bajo que sirve tanto para cocinar como para calentar la casa. "Laratza" (1) es una cadena que cuelga de la chimenea en la que se cuelga la marmita. "Talo burdinak" (2) son bases de metal, redondas y con mango, con las que se hacían los talos en el fuego. "Eltze-hankak" (3) y "trebedeak" (4) son bases de metal para contener recipientes junto al fuego. La "padera" (5) sirve para asar castañas en el fuego bajo.

1. Laratza

3. Eltze-hanka

5. Padera

4. Trebedea

2. Talo burdinak

6. Pertza

7. Tupina

8. Burdinazko eltzea

11. Pegarra

9. Zartagina

10. Lurrezko eltzea

Pertza (6) brontzezko eltzea da, lurreko suaren gainean dilindan paratzen dena, ura berotzeko eta janaria prestatzeko. Tupina (7) eta burdinezko eltzea (8) janaria prestatzeko eltzea dira, baita zartagina (9) ere. Lurrezko eltzean (10) zerrikiak koipean gordetzen dira. Pegarra edo subila (11) iturritik etxerat buru gainean ura garraiatzeko ontzia da.

La "pertza" (6) es un recipiente de bronce que se cuelga sobre el fuego bajo, sirve para calentar agua y cocinar. Otros recipientes para cocinar son la "tupina" (7), "burdinezko eltzea" (8) y "zartagina" (9). "Lurrezko eltzea" (10) es un recipiente en el que se conservan los embutidos en grasa o aceite. La "Pegarra" o "subila" (11) se utiliza para transportar agua de la fuente sobre la cabeza.

14. Arasa

15. Xukatzailea

12. Zizeilua

13. Oramahaia

Zizeilua (12) sutondoan dagoen egurrezko banku zabala da, biltzen den mahaiarekin. Oramahaia (13) ogia oratzeko altzaria da. Arasan (14) platerak edukitzen dira eta xukatzailean (15) platerak xukatu edo idortzen dira.

"Zizeilua" (12) es un banco ancho con mesa abatible que se coloca junto al fuego bajo. Para amasar el pan se utiliza un mueble llamado "oramahaia" (13). Los platos se guardan en un mueble llamado "arasa" (14) y se escurren y secan en otro llamado "xukatzailea" (15).

16. Lixiba-harria

17. Zurrutarria

18. Zurrutarria

Arropa garbitzeko lixiba erabili beharrean, harrizko ontzi batean, lixiba-harria (16), sartu eta errautsez eta ur beroz zuritzen zuten. Ura biltzeko edo eta etxetik kanpo ateratzeko zurrutarria (17 eta 18) erabiltzen zen.

En vez de utilizar lejía para blanquear la ropa, ésta se metía en un recipiente de piedra, "lixiba-harria (16), y se blanqueaba con ceniza y agua caliente. Para recger el agua o sacarlo fuera de casa se utilizaba la "zurrutarria" (17 y 18).

Esnea eta esnekiak

Behiak edo ardiak jezteko kaikua (1) erabiltzen da, baita gaztanbera dastatzeko ere. Esnea iragazteko irazkia (2) erabiltzen da, asoinez beteta. Abatzan (3) esnea bildu eta harria goriz egosten da. Harria (4) sutatik tenazarekin (5) hartzen da. Goporra (6) esnea edateko ontzia da. Malatsa (7) gasna egiteko erabiltzen den zurezko irabiagailua da. Zimitza (8) gasna egiteko erabiltzen den molde zilindrikoa da. Zimitzaren azpian, gazura isuritzeko, kartola (9) jartzen da, Gero, gazura erabat kentzeko, prensa (10) erabiltzen da.

La leche y sus derivados

El "kaiku" (1) sirve para ordeñar vacas y ovejas, también se usa para degustar cuajada. La leche se cuela con la "irazkia" (2), que se llena con ortigas. En la "abatza" (3) se recoge la leche y se cuece con una piedra al rojo, "harria"(4). La piedra se coge con una tenaza (5). "Goporra"(6) es un recipiente con el que se bebía la leche. Para hacer queso se usa la "malatsa" (7) como batidor. "Zimitza" (7) es un recipiente cilíndrico que sirve de molde para hacer quesos. La "zimitza" se coloca sobre la "kartola" (9) para que escurra el suero. Para terminar de escurrir todo el suero se usa la "prentsa" (10).

1. Kaikua

7. Malatsa

3. Abatza

2. Irazkia

6. Goporra

8. Zimitza

5. Tenaza

4. Harria

9. Kartola

10. Prentsa

Logela

Baserri bakoitzean hiru edo lau ohe zeuden, linuzko beren zorro eta guzti, eta beti egoten zen kutxa (1) bat edo bertze arropa gordetzeko haltzaria. Bertan sehaska (2), pizontzia (3), ohatze berotzekoa (4), ur bedeinkatuaren ontzia (5) eta argi (6) ezberdinak aurkitzen ziren.

Dormitorio

Los caseríos disponían de tres o cuatro camas con sus sabanas de lino y una "kutxa" (1) u otro mueble para guardar la ropa. En el dormitorio se encontraban la cuna (2), el orinal (3), el calentador de cama (4), la aguabenditera (5) y diferentes lámparas (6).

6. Argiak *Lámparas*

Kriseilua

Karburo argia

Kanderailua

1. Kutxa

4. Ohatze berotzekoa

5. Ur bedeinkatuaren ontzia

3. Pizontzia

2. Sehaska

Urtsuako Jauregia *Palacio de Ursua*

Dorretxeak

Dorretxeak Erdi Aroko noblezia militarraren jauregiak eta babeslekuak ziren. Baztango noblezia militarrak ez zuen jaurerri erraldoirik (Baztango lurrazal gehiena herri-lurra baitzen), baina garai horretako errepideak eta pasabideak kontrolpean zituen. Horregatik daude dorretxe gehienak bide bazterrean.

Dorretxeak behin eta berriz birmoldatu dira. Kontuan izan behar da XVI. mendean dorretxe gehienak suntsituak izan zirela: 1512an, Nafarroako konkistan, gaztelauek dorretxe gehienak suntsitu baitzituzten, eta 1522an berriz. Gainera, Nafarroa konkistatu bezain laster, nafarren defentsa-eraikin guztiak, baita Gaztelaren aldeko jauntxoen gazteluak eta dorretxeak ere, hondatu eta txikitu zituzten.

Casas-torre

Las casas-torre eran viviendas y fortalezas de la antigua nobleza militar. La nobleza militar de Baztan no tenían grandes señoríos (la gran parte los terrenos en Baztan son comunales), pero tenían bajo control los caminos y pasos más importantes. Por esa razón gran parte de las casas-torre se encuentran a la orilla de una vía de comunicación.

Muchas de las casas-torre han sido muchas veces modificadas o reconstruidas a lo largo de la historia. Hay que tener en cuenta que la mayoría fueron destruidas en el siglo XVI, ya en 1512 en la conquista de Navarra, y nuevamente en 1522. Además, tan pronto como Navarra fue conquistada, se ordenó la destrucción y desmoche de cualquier defensa o castillo, incluidos el de los señores que lucharon en el bando de los castellanos.

Zozaiako Jauregia *Palacio de Zozaia*

Jauregizarrea (Arraioz)

XVI. mendeko etxeak

XVI. mendean baserriaren ereduara finkatzen da: beheitia (animaliendako ukuilua dena), goitia edo solairu noblea (sukaldea, jangela, gela nagusia eta logelak) eta teilatupea (sabai, lastategi eta jakitoki bezala erabiltzen dena). Garai honetako ezaugarri nagusiak tamaina handiak eta harriaren erabilpena dira.

Casas del siglo XVI

En el siglo XVI se consolida el modelo de caserío: planta baja destinada como cuadra para animales, planta primera como planta noble o vivienda (cocina, comedor, salón y dormitorios); y desván ("sabaia") como pajar y despensa.
Destacan de estas casas su gran tamaño y el uso de la piedra.

Puriosenea (Elizondo)

Arretxea (Oronoz)

Arizkunenea (Elizondo)

XVII-XVIII. mendeetako etxeak

XVII. eta XVIII. mendeetan aldaketa sozial eta ekonomiko handia gertatu zen Baztanen; alde batetik, Madrildik eta Ameriketatik heldu zen aberastasuna zela eta, eta bertzetik, bertako biztanle anitzek eskuratu zituzten noblezia agirien ondorioz. Ameriketatik ekarritako artoak ere ikaragarrizko iraultza eragin zuen bertako nekazaritzan. Hortaz, etxe dotore berri ugari eraiki ziren eta zahar anitz berritu.
Kasu gehienetan baserriaren ereduari jarraipena emanen zaio, baina badira bertze batzuk garai horretan modan ziren estiloak jarraitzen dituztenak, batez ere Madrilen Borboitarrek ezarritako estiloa eta gustuak.

Casas de los siglos XVII-XVIII

A lo largo de los siglos XVII y XVIII va haber una serie de grandes cambios a nivel social y económico en Baztan: por un lado, la riqueza que viene de Madrid y de América por parte de vecinos que han emigrado y que usan su origen noble para acceder a grandes cargos, y por otro lado el maíz que llega de América y va suponer una revolución en la agricultura local. En este periodo de bonanza se van a construir una gran cantidad de grandes casas y se van a renovar muchas de las ya existentes.
En muchos casos se siguió el estilo tradicional del caserío, pero en otros se construyeron siguiendo los estilos de moda en la época, sobre todo el estilo imperante en el Madrid de los Borbones.

Arraztoa (Azpilkueta)

Jarola (Elbete)

Etxenikea (Erratzu)

Paularena (Elizondo)

XIX-XX. mendeetako etxeak

XIX. mendean arkitektura-eredu berriak agertu ziren, banaketari dagokionez etxe berri gehienek eredu tradizionala jarraitzen bazuten ere. Eredu berriak bloke kubikoak osatzen zituen, zurezko teilatuhegalaren gaineko lau uretako teilatuarekin. Hormek gisuzko luzitu tradizionala daukate, leiho, ate eta izkinetako harlanduekin kontrastatzen zuena.

Amerikan aberastu ziren auzotar batzuek eraikitako etxeak dauzkagu. Etxe hauek penintsulako iparralde osoan zabaldutako "jauregitxo indiano"aren eredua jarraitzen zuten: estilo eklektikoko jauregitxo lorategidunak, jatorri ezberdineko dekorazioa eta estilo hanpatu eta monumentala konbinatzen dituztenak.

Casas de los siglos XIX-XX

Pese a que en el siglo XIX surgen nuevos modelos arquitectónicos, la gran mayoría de las casas siguen una distribución tradicional. Las nuevas casas tienen un aspecto de cubo con tejado a cuatro aguas, Los muros exteriores continúan enluciéndose con cal, en contraste con la piedra vista de los vanos y esquinas.

También tenemos las casas de aquellos vecinos que emigraron a América e hicieron fortuna. Algunas de estas casas siguen el modelo de palacio de indiano tan extendido en todo el norte de la península: palacetes ajardinados de estilo ecléctico, con una decoración voluptuosa y monumental de diversos orígenes.

Manuelenea (Elizondo)

Aldakoetxea (Erratzu)

Arroseneko gaineko borda (Aritzakun)

Bordak eta mendi-bordak

Bordak mendian dagoen azienda edo/eta artzainak gordetzeko eraikinak dira, saroiekin eta mendi bazkalekuekin lotura dituztenak.
Erdi Aroko borda gehienak komunalak ziren. Hala ere, XVII. mendean eta, batez ere XIX. eta XX. mendeetan, pixkanaka mendiko bordak pribatu bihurtu ziren.

Bordas, y "mendi-bordak"

Las bordas son pequeños edificios construidos en el monte para guardar el ganado y/o los pastores, teniendo una relación directa con las "saroiak" y pastizales de montaña.
En la Edad Media la gran mayoría de las bordas eran comunales. Sin embargo, en los siglos XVII, y sobre todo en los siglos

Eukonimia aldetik, bordak jabetza zituzten etxeen izenak errepikatzen dituzte (adibidez: Iriartea etxea eta Iriarteko borda).
XIX. mendean eta XX. mende hasmentan Baztango biztanle kopurua gero eta handiagoa izan zen eta mendiko bordak baserrietan bihurtu ziren. Baserri hauetan bizi zirenak maizterrak ziren edo baserrian bizitzeagatik errentak ordaintzen zituztenak.
XX. mendean baserrietan bizi ziren zenbait lagun Ameriketarat joan ziren, gehienak artzain Estatu Batuetara. Ameriketan egindako diruarekin sortetxea eta inguruko lurrak erosi zituzten.
Bordak ziren baserriak borda berriak eraiki zituzten, baserriaren hazienda edo/eta artzainak gordetzeko. Borda hauek mendi -borda edo ardi-bordak izenarekin ezagutzen dira.

XIX y XX, gradualmente van a ser privatizados muchos de ellos. En lo referente a la euconimia, la bordas repiten el nombre de las casas que eran propietarias (por ejemplo: casa Iriartea y borda de Iriartea).
Entre el siglo XIX y comienzos del XX la población de Baztan va a experimentar un gran crecimiento y muchas de las bordas se van a convertir en caseríos. Los habitantes de estos caseríos van a ser "maízterras", pagando una renta por vivir en los mismos.
Durante el siglo XX muchos de los que vivían en estos caseríos van a emigrar a América, la mayoría como pastores a Estados Unidos. Algunos volverán con dinero y podrán comprar su caserío natal así como también sus tierras.
Asimismo, los caseríos que antiguamente eran bordas van a construir nuevas bordas para resguardar el ganado y/o pastores. Estas nuevas bordas también se conocen como "mendi-bordak" o "ardi-bordak".

Mendi-bordak (ardi-bordak)

Infernuko Errota *Molino del Infierno*

Zaldubiko errota (Irurita) *Molino de Zaldubia (Irurita)*

Eraikin etnografikoak

Nahiz eraikin etnografiko gehienak katalogatutak ez egon, ikerlariek ia mende bat daramate Baztango ondare etnografikoa aztertzen eta ezagutarazten.
Jauregi handiak, elizak, baselizak, baserriak eta etxebizitza xumeagoez gain, auzotarrek auzolanean eraikitako izaera herrikoia duten arkitektura zibileko bertze lan batzuk ere badaude: lurra ongarritzeko edo etxeak eraiki eta luzitzeko gisua egosten zuten labeak, garia eta artoa irintzeko errotak, lisutokiak, garai batean gaztainak biltzen ziren gaztaindegiak, burdinolak eta ferrategiak… baita eraikin industrialak ere: argi zentralak, edo gaur egungo lantegiak.

Construcciones etnográficas

A pesar de que la mayoría de las construcciones etnográficas no están catalogadas, estudiosos llevan estudiando el patrimonio etnográfico de Baztan más de un siglo. Además de grandes palacios, iglesias, ermitas, caseríos y casas más modestas; los vecinos han construido, muchas veces en "auzolan" o trabajo colectivo, otras construcciones con carácter civil y popular: hornos de cal en los que se producía la cal que servía para abonar huertas y enlucir casas, molinos para moler trigo y maíz, lavaderos, castañeras para conservar las castañas, ferrerías y herrerías… También tenemos construcciones de carácter más industrial como son las centrales hidroeléctricas y las actuales fábricas.

Xartolako errotak (Azpilkueta) *Molinos de Xartola (Azpilkueta)*

Errotak

Baztanen ditugun dokumentu zaharrenetakoak (Erdi Arokoak) errotek ordaindu behar zituzten zergei buruzko dokumentuak dira. Datu honek errotek zeukaten garrantzia adierazten du.
Nahiz XX. mendean errota gehienek irina egiteari utzi zioten, 1977an Vidal Pérez de Villarreal ikerlariak 48 errota zenbatu zituen Baztanen.
XVIII. mendean artoak garrantzi handiko iraultza eragin zuen bertako nekazaritzan. Artoa agertzearekin batera gosearen mamua desagertuko da eta errota gehiago eraikiko dira ogia ez ezik arto-irina edo azienda bazkatzeko arto-pentsua egiteko.

Molinos

Los documentos más antiguos que existen en Baztan son documentos medievales que tratan sobre los impuestos que debían pagar los molinos. Estos documentos son un reflejo de la gran importancia que tenían los molinos.
Aunque gran parte de los molinos dejaron de producir durante el siglo XX, en 1977 Vidal Pérez de Villareal llegó a contar hasta 48 molinos en Baztan.
En el siglo XVIII el maíz supuso toda una revolución en la agricultura local. La aparición del maíz supuso la desaparición del hambre y la proliferación de más molinos para moler maíz, tanto para harina

Jauregi bakoitzak bere errota zeukan, eta hauen ondoan herriek, "porzionisten" bitartez beraienak. Porzionistek errotazain bat kontratatzen zuten eta honek bere lanaren sari gisa beretzat gordetzen zuen landutako arto edo ogiaren zati bat, "makila" edo laka deiturikoa (erregu batetik laka bat).

Bestalde, irin-errota hidrauliko baten funtzionamendua honelakoa da: presa batek errekaren ura biltzen du eta kanal baten bitartez errotaraino eramaten du antepara izeneko depositu handi bateraino. Ontzi horretan behin aski ur pilaturik, errotariak askatzen du eta uginda edo saetina izeneko hodi batetik presioarekin atera eta azeniaren palak indarrez kolpatzen ditu. Inpaktuak arras bizkor jiraraztzen du gurpila, eta horren errotazio-mugimendua harri zirrindolara pasatzen da ardatz baten bitartez. Errotariak tolba edo enbasadorea deitzen den edukiontzi batera erortzen utziko du artoa edo ogia. Tolba horren azpialdean, kalapatxa izeneko kutxa batek bi errotarrien artetik "iragazi" beharreko ale kopuru zehatza erregulatzen du. Errotarrien mugimendu zentrifugoak ahalbidetzen du irina kanpoaldera ateratzea harrien azaleran egindako ildoen bitartez. Zurezko karkasa batek, "kutxa", ez du irina lurrerat erortzen uzten, eta horrela, irina poliki-poliki, zurrutaren bitartez, erortzen da askarat. Sistema mekaniko xelebre batek, pisuen eta txarrantxak, errotariak harrien biratzeen abiadura, irinaren kalitatea edo lodiera, eta xehatze abiadura erregulatzea ahalbidetzen du.

como pienso para el ganado. Cada palacio tenía su molino, así como los construidos por los pueblos a través de porcionistas. Los porcionistas contrataban al molinero y éste, a cambio de su trabajo, recibía una parte de trigo o maíz llamado "makila" o "laka" (una "laka" por cada arroba).

El funcionamiento del molino hidráulico es el siguiente: una presa recoge el agua del riachuelo y lo desvía al molino a través de un canal hasta un pozo llamado antepara. Cuando el pozo está lleno se libera el agua a través de un tubo llamado "uginda" o saetín con mucha presión, golpeando las palas y moviendo la "azenia." Ésta se mueve rápidamente y este movimiento pasa a la piedra volandera, la piedra superior de moler, a través de un eje llamado "ardatza". El molinero llena de trigo o maíz la tolva. Bajo la tolva se encuentra una caja llamada "kalapatxa" que deja caer el grano entre las dos piedras de molino, pudiéndose regular la cantidad que cae. El movimiento centrífugo de la piedra empuja el grano hacia fuera que sale ya convertido en harina a través de las muescas que se tallan a las piedras. La carcasa de madera o "kutxa" impide que salga fuera la harina, de manera que ésta sale gradualmente a través de la "zurruta". A través de un sistema mecánico compuesto por la "pisuen" y "txarrantxa" el molinero controla la velocidad de la piedra volandera, la calidad de la harina o su grosor.


Astokajoia
Tolba
Maratila
Kalapatxa
Kalaka
Kutxa


Peskantea
Zurruta
Bidea
Aska
Uginda
Azenia


Bidea
Gaineko harria
Pisuena
Beheitiko harria
Ejea
Txarranta
Altxaziria
Ardatza
Azenia
Astazaldia
Ondamahaia
Ondakiloa
Katilua

Errotarria

Irin-paleta

Zorromakila

Erregela

Erregua
28,13 l.

Erregu erdia
14,08 l.

Gaitzerua
7,04 l.

Laka
1,77 l.

Ondare etnografikoa *Patrimonio etnográfico*

Gamioxarrea (Arizkun)

Dolareak

Dolaretxea sagardoa egiteko eraikina zen eta dolarea sagarra jotzeko lekua eta patsa estutzeko tresna. XVI. eta XVII. mendeetan barna Baztango etxe anitz sagardo fabrika hauek eraikitzen hasi ziren. Dolaretxea, Dolagaraia, Dolarea... izeneko etxeak Baztango herri eta auzo gehienetan aurkitzen dira. Jarduera honen garrantziaren seinale da Arizkungo herrigunean dolare bat baino gehio zeudela eta bertze herrietan bezala. Halere, XIX. mendetik goiti dolaretxe hauek desagertuz joan ziren. XX. mendean jadanik, sagardoa egiteko burdinezko ardatz bakarreko esku-

Lagares de sidra

El lagar es el edifico dónde se prensaba y elaboraba la sidra. Durante los siglos XVI y XVII la mayoría de las casas de Baztan comenzaron a construir lagares de sidra. Mucho de los nombres de casas en Baztan hacen referencia a estos lagares: Dolaretxea, Dolagaraia, Dolarea... (dolarea: lagar de sidra). En el caso de Arizkun debían haber mínimo cuatro lagares, y en Amaiur cinco. Sin embargo todos estos lagares dejaran de funcionar a lo largo del siglo XIX. Ya en el siglo XX la sidra ya no se elabora en grandes lagares sino en prensas más pequeñas (prensas de mano).

prentsak erabiltzen ziren.
Dolareko askan sagarra hedatzen da. Sagar joleek fruituapisoi edo mazekin jotzen dute eta patsa (jotako sagarra) abaroarekin bazter batean uzten dute, bertze hedaldi bat, jo eta bazterrerat… Honela behin eta berriz jarduten dute, dolareko aska patsez bete artio. Patsa ordu batzuz beratzen utzi ondotik, honekin mukuru bat egin eta patsoholez estaliko dute pats mukurua. Zeharka giltzak jarriko dituzte, patsohol lerrokada finkatuz eta altuera lortuz. Segidan ardatzak kiderrekin birarazten dira. Estutzerakoan patsak zukua jario, askaren txorrotatik atera, eta kanal baten bidez kupelategi aldera bideratzen da.

Las manzanas se extienden en el suelo del lagar y son machacadas con mazos. Las manzanas trituradas se amontonan en un rincón y se repite esta acción machacando más manzanas hasta llenar la cuba del lagar.
Tras dejar reposar las manzanas ya machacadas, se hace un gran montón con ellas intercalando tablas y pequeñas vigas de madera hasta ganar cierta altura. Entonces se colocan los ejes (ardatzak) en la parte superior, con las que se aprietan las manzanas produciendo así zumo de manzana, el cual se escurre por un agujero del lagar. El zumo se introduce en toneles en donde se convierte en sidra.

Gamioxarrea (Arizkun)

Azpilak edo gaztaindegiak

Penintsulan gaztainadiak anitz hedatu ziren, bereziki Atlantikoko aldean. Gure eskualdean erraten da hamabi bat gaztaina mota bederen bazirela lehen; San Migelak ziren lehenak biltzen eta goxoenak, eta San Martin izenekoak, azkenak, txerriendako izaten ziren. Orain, aldiz, gaztainek eta gaztainondoek egundoko desagerpena jasan dute, alde batetik, "tinta" edo txankro izeneko eritasunaren ondorioz, eta bertze alde batetik, gaur egun daukagun klima epelarengatik. Euskal Herrian Ameriketatik ekarritako artoa hedatu baino lehen (artoa XVIII. mendean hasi zen landatzen eskualdean), elikagai gisa ikaragarrizko garrantzia zeukan gaztainak eta gizakien oinarrizko janaria zela erraten ahal da (sagarrekin batera). Fruitu lehorrak, hurrak, ezkurrak, giltxaurrak, gaztainak… biltzeko errazak zirenez eta denbora luzez mantentzen zirenez elikagai preziatuak ziren. Gaztainen kasuan, hain zuzen, bere azal-babesa arras denbora luzekoa zenez, urte osoan irauten ahal zuen eta funtsezko elikadura eta elikagaia bihurtu zen. Behin gaztaina lehortuta, on-

Castañeras

En la península se extendieron muchísimo los castaños, sobre todo en la vertiente atlántica. Se dice que en la zona existían hasta doce tipos de castañas: la San Miguel era la primera y más apreciada; y la San Marín la última y destinada a alimentar a los cerdos.
Hoy día los castaños están desapareciendo, por un lado debido a enfermedades como la tinta y por otro por el calentamiento global. Antes de que el maíz llegara de América a Heuskal Herria (su cultivo en la zona se dará en el siglo XVIII), las castañas eran un producto de grandísima importancia y se pude decir que eran alimento básico en la dieta de los habitantes del lugar (junto con las manzanas). Junto con otros frutos secos como las avellanas o las nueces, las castañas eran fáciles de recoger y se mantienen durante bastante tiempo, siendo alimentos muy importantes. En el caso de las castañas, al estar cubiertos por una cápsula espinosa, se mantiene durante mucho tiempo, siendo un valioso alimento durante gran parte del año. Una vez secada la castaña, bien

gi xehatuz irin gozoa ateratzen zuten eta horrekin ogia (opilak) egiten zen. Gainera, Baztanen kasuan, Erdi Aroan gaztaina, jakiaz gain, merkatal produktua ere bazen, arras preziatua. Baztango gaztainondo aberatsetik gaztainak bildu eta eskualdetik kanpo saltzen ziren.

Zoritxarrez, gaztainondo anitz eta gaztainaren negozioa "tinta" izeneko eritasun batek XIX. mendean desagerrarazi zuen. Eritasuna onddo bat da, normalean lurreko materia organikoan bizi dena. Gaztainondoaren sustraiak harrapatzen dituelarik, zuhaitza poliki-poliki hil egiten da; infekzioa enborretik hurbil hasten bada, gaztainondoak ez du denbora handirik iraunen. Eraginen artean adarrak lehortzea, behar baino lehenago hostoak horitu eta erortzea eta fruitu eskasia daude. Dena den, tintak edo txankroak ez zuen gaztainondo guztiekin akitzea lortu, eta gaur egun oraindik posible da gure gaztainaz gozatzea.

Gaztainak gordetzeko erabiltzen ziren harrizko eraikinak, gaztaindegiak edo azpilak ziren. Normalean basoen barnealdean eta gaztainondoetatik hurbil kokatzen zituzten. Gaztaina lizundu ez zedin edo harrak erraztasunez jo ez zezan gaztainak kakotsekin (morkotsekin) biltzen ziren. Gero zumezko saskitxoetan uzten ziren eta, saskiak bete ondoren "gaztainetxeetarat" eramaten zituzten. Hor pilatzen ziren eraikina bete artio eta ez usteltzeko lurrez, adarrez, iratzez edo zakuz estaltzen ziren, eta halaxe manten-tzen ziren fresko. Gaztainak morkotsekin biltzen ziren. Hilabete pare bat pasa eta gero, abenduan edo, altxarrastelu baten laguntzaz, mor-

molido da como resultado una harina dulce con el que podían elaborar pan. Además, en Baztan, las castañas no solo eran alimento de sus habitantes, también era un producto preciado con el que se comerciaba fuera. De los fértiles castaños de Baztan se recogían las castañas que eran vendidos fuera del valle.

Desgraciadamente el comercio de la castaña desaparecerá en el siglo XIX por culpa de la enfermedad de la tinta. Esta enfermedad es un hongo que normalmente se desarrolla en la materia orgánica del suelo. Cuando afecta a las raíces de los castaños, estos mueren poco a poco. Cuando afecta al tronco del castaño, este muere en poco tiempo. Entre sus síntomas está el amarilleado y caída de las hojas, escasez de castañas y el secado de las ramas. De todas formas, la tinta no acabó con todos los castaños de la zona y aún es posible disfrutar de nuestras castañas.

Las construcciones de piedra que se utilizaban para almacenar y conservas las castañas reciben el nombre de "azpilak" o castañeras. Normalmente se construían en el interior de los bosques, junto a los castaños. Para que no se pudrieran las castañas o les entraran larvas, las castañas se recogían con sus capsulas espinosas ("kakotsa" o "morkotsa"). Después se juntaban en cestas de madera y tras llenarlos se llevaban a las castañeras. Aquí se almacenaban hasta llenar la construcción y para evitar que se pudrieran se cubrían con tierra, ramas y helecho, manteniéndose así frescos. Las castañas se almacenaban con su capsula espinosa. Pasados unos dos meses, hacia diciembre, con la ayuda de

kotsak kanpora ateratzen ziren eta tresna horrekin berarekin jo egiten zen gaztainak erauzteko.

un rastrillo se extraían las castañas con sus capsulas y, usando la misma herramienta, eran peladas.

Azpila (Aintzialde-Arizkun)



Azpila (Irlintzi-Elizondo)



Azpila (Arrobi-Lekaroz)

Azpila (Beartzun-Elizondo)

Autringo elur-zuloa (Elbete) *Nevero de Autrin (Elbete)*

Elur-zuloak

Elur-zuloak edo elurtegiak elurra gordetzeko edo kontserbatzeko prestatutako eraikinak ziren. Elurraren ustiaketa antzinarotik egin da; nahiz erromatarrek Europako mendebaldean elurraren erabilera (medikuntzarako, jakiak mantentzeko…) zabaldu, XIV. eta XV. mendera artio ez zen elurraren berrerabiltze masiboa egin. Garai horretan, herrietan halako eraikinak agertzen hasi ziren eta ia-ia XX. mendera artio, "izotz fabrikak" agertu arte, jarraitu zuten.

Medikuntzan elurra (edo, hobeki errana, horma) sukarra jaisteko, meningitisa tratatzeko, odoljarioak geldiarazteko, hezur hausturak eta orkatila bihurrituak lasaitzeko… erabiltzen zen. Bertze erabilpen bat, edariak freskatzearena zen, bai ardo hotz-hotza edan ahal izateko, bai izozkiak egi-

Neveros

Los neveros eran construcciones que servían para almacenar y conservar la nieve. El uso de la nieve viene de muy antiguo. Aunque su uso se extendió con los romanos (para alimentación o conservación de los mismos), no dará hasta los siglos XV y XVI su uso masivo. Es en esta época cuando se aparecen en los pueblos estas construcciones que perduraron hasta la aparición de fábricas de hielo en el siglo XX.

En medicina la nieve (o mejor dicho, el hielo) se usaba para bajar la fiebre, tratar la meningitis, parar hemorragias, calmar huesos rotos y esguinces…

Otros usos eran refrescar bebidas como el vino o elaborar helados (para ello usaban un recipiente en donde se mezclaban la nieve y la leche).

teko ere (izozkiak egiteko elurra eta esnea nahasten zuen metalezko tramankulua erabiltzen zen).
Normalki elurteak urte osoan ez bazen, negu osoan irauten zuen tokietan elur-zuloak naturalak ziren, eta "letzea" izenarekin ezagutzen ziren.
Baztanen lau elur-zulo daude: Elizondoko Herriko Etxearen baratzean, Etxaideko auzoan, Amaiurko herriaren sarreran eta Elbeteko Autrin mendiaren inguruan, azken hau arras tamaina handiko elur-zuloa da.
Elur-zuloak harriz egindako putzu sakonak dira kasu batzuetan. Etxaideko kasuan, adibidez, putzua harrizko kupula batekin estalita dago. Kupulak ate ttiki bat zeukan elurra eskuratzeko. Elur-zuloak egiterakoan toki aproposa aukeratzen zen; ipar aldera egotea edo ematea, egun osoan itzalean egotea eta malda pixka bat izatea.

Normalmente, aunque no había grandes nevadas durante todo el año, sí que había neveros naturales en donde se mantenía la nieve durante todo el invierno a los que se les conocía con el nombre de "letzea".
En Baztan encontramos al menos cuatro neveros: en la huerta de la Casa del pueblo en Elizondo, en el barrio de Etxaide, a la entrada del pueblo de Amaiur y en el monte Autrin de Elbete, siendo este último un nevero de gran tamaño.
Los neveros son profundos pozos construidos en piedra. En el caso del nevero de Etxaide el pozo está cubierto por una cúpula de piedra. Esta cúpula tiene una pequeña puerta por donde se introducía y extraía la nieve.
A la hora de construir los neveros había que localizar el lugar idóneo: lugares orientados hacia el norte, sombríos todo el día y situados en pendiente.

Etxaideko elur-zuloa *Nevero de Etxaide*

Kisu-labea Horno de cal

Kisu-labeak edo karobiak

Kisua duela guti artio ezinbertzekoa zen eguneroko bizitzan: eraikuntzak morteroarekin egiten ziren, baserriak gisuarekin zuritzen ziren, medikuak karea errezetatzen zuen, gisuarekin heiak desinfektatzen ziren eta alorrak ongarritzeko erabiltzen zen.

Europan erromatarrek bildu eta hobetu zuten gisua lortzeko modua. Gisu-labearen barnean gisu-harrizko bobeda batean gisu-harria (1) pilatzen zen eta azpian haritz eta pago egurra erretzen zen, gau eta egun. Labearen azpialdean, sua pizteko ahoa (2) zegoen eta bigarren zulo batek, hauspoa (3), airearen sarrera erregulatzen zuen. Egosketa sei bat egunen buruan akitzen zelarik, sua itzali egiten zen eta pare bat egunez hozten utzi ondotik, gisu bizia ateratzen zen.

Hornos de cal

Hasta hace poco la cal era un producto imprescindible: con ella se creaba el mortero de construcción, se blanqueaban los caseríos, la recetaban los médicos, se desinfectaban las cuadras y se abonaban las tierras.

En Europa fueron los romanos quienes desarrollaron y extendieron las forma de crear cal. En los hornos de cal se apilaba la piedra caliza (1) sobre una bóveda del mismo material y debajo se amontonaba madera de roble y haya al que se le daba fuego. En la parte inferior del horno hay una boca (2) por donde se alimenta el fuego y un segundo orificio que hace de tiro (3). La cocción de la piedra caliza duraba unos seis días, tras los cuales se dejaba enfriar la cal dos días y después se extraía.



1. Gisu-harria
2. Ahoa
3. Hauspoa

Kisu-labeak Hornos de cal

Iñarbileko lisutegia *Lavadero de Iñarbil*

Lisutegiak

Gaur egun ezagutzen ditugun garbigailuak Baztanerat ailegatu baino lehen, etxeko arropak etxeko lixiba-harrian edo auzoko lixibategian zuritzen ziren. Lisutegiak herritarrek egindako eraikinak izaten ziren eta auzokideek erabiltzen zituzten. Lisutegiaren barnean iturria, putzua eta arropa astintzeko harriak zeuden, baita arropa idortzeko lekua ere. Lisutegiaren inguruan herriko edo auzoko iturria eta azienda ura edateko ur-aska daude.

Lavaderos

Antes de la llegada a Baztan de las lavadoras modernas, la ropa de las casas se lavaban y blanqueaban en el lavadero de casa o en lavaderos del barrio. Estos últimos eran lugares construidos por los vecinos que los usaban. En el interior del lavadero se encuentran la fuente, el pozo y las piedras donde se frotaban las ropas; también un lugar donde secarlas. Junto al lavadero está la fuente del barrio y el abrevadero para el ganado.

Ondare etnografikoa *Patrimonio etnográfico*

Iruritako ferrategia *Herrería de Irurita*

Burdinolak eta ferrategiak

Baztan Erdi Aroan burdinaren industria garatzeko egoera ezin hobean zegoen: burdin meategiak zituen, ikatza sortzeko basoak, burdinolak mugitzeko errekak eta komunikazioa itsas portu nagusiekin: Irun, Baiona eta Donibane Lohizune. Baztango toponimian "ola" hitza bazter guzietan dugu: Gainekola, Olaberria, Olabidea…

Gaur egun ferrategiak dauzkagu Baztanen; Iruritako ferrategia oraindik martxan ikusten ahal da. Ferrategietan zaldiak, behorrak, mandoak, behiak eta idiak ferratzen ziren, baita burdinazko lanabesak konpondu ere.

Ferrerías y herrerías

Durante la edad media Baztan era un lugar idóneo para el desarrollo de la industria del hierro: había minas de hierro, bosques para crear carbón, riachuelos para mover las ferrerías y comunicación a los principales puertos de mar: Irun, Baiona o San Juan de Luz. En la toponimia de Baztan encontramos muchos nombres con la palabra ola (fábrica o ferrería): Gainekola, Olaberria, Olabidea…

Actualmente existen herrerías en Baztan, siendo posible ver en funcionamiento el de Irurita. En las herrerías se herraban caballos, mulas, vacas… también se arreglaban aperos de metal.

Gainekola-Bakeola (Azpilkueta)

Ferratzeko potroa
Potro para herrar

Mailuka

Txinguria

Zorroztarria

Hauspoa

Behor-ferrak

Mando-ferrak

Behi-ferra

Matxetea

Kuxamentua

Burdin-aizturrak

Txinguria

Tenazak

Ferra-tenazak

Aliketa

Kortadorak

Elbeteko teileria *Tejeríade Elbete*

Teileriak

Teilak eraikuntzan erabilitako osagarri bat izateaz gain, euskal etnografia eta folklorean sinbologia handiko elementua zen eta gehienbat "etxea"-ren jabegoa irudikatzen zuen. Borden kasuan erraterako, teilak zituzten bordak pribatuak ziren eta lauzaz estalita zeudenak, berriz, komunalak. Emakume batek haurra izaten zuelarik, 40 egunez ez zen etxetik ateratzen ahal; etxetik atera nahi bazuen, teila bat jarri behar zuen buru gainean.
Baztanen teileriak herri anitzetan izan ziren: Elbeten, Iruritan, Lekarozen... Gaur egun zutik dagoen bakarra Elbetekoa da. Teilerian lurrez egindako teilak egosten ziren eta inguruko lur eremu zabal batean pilatu.

Tejerías

Las tejas, además de elementos constructivos, tienen una gran simbología en el folclore y la etnografía vascas, representando sobre todo la propiedad de la casa. En el caso de las bordas, las privadas estaban cubiertas con teja y las comunales con losa. Cuando una mujer daba a luz debían guardar cuarentena sin poder salir de casa, si tenía que salir de ella debía colocarse una teja sobre la cabeza.
En Baztan había tejerías en varios lugares: Elbete, Irurita, Lekaroz... Actualmente el único que sigue en pie es el de Elbete. En las tejerías se cocían las tejas hechas de barro y después se extendían en un terreno amplio cercano.

Iruritako teilerian egindako bizkar-teilak
Tejas cumbreras hechas en la tejería de Irurita

Eskolak

Baztango garapen ekonomiko eta sozialean hezkuntzak garrantzi handia izan zuen. XVIII. mendean Madrilen eta Ameriketako kolonietan aberastutako baztandarrek fundazioak sortu zituzten hezkuntza bulkatzeko eta baztandarrei Madrilgo gortean edo Erresumaren administrazioan sartzeko aukerak errazteko. Kasu batzuetan, Iruritako Tiburcio de Hualderen kasuan bezala, irakasle elebidunak eskatzen zituzten, gaztelaniaz eta euskaraz irakasten zutenak. Fundazio hauekin batera jesuitek, frantziskanoek eta kaputxinoek eskolak sortu zituzten Baztanen.

Fundazioek jarraipena izanen dute hurrengo mendeetan. Horrela, XX. mendean, Lekarozko eskolarekin batera (Nafarroan euskaraz irakasten zuen lehendabiziko eskola) Urrutia familiak bi eskola sortu zituen Oronozen. Eskola erlijioso gehiago ere sortuko ziren: Elizondon, Etxerriko auzoan, Oharrizko komentuan...

Eskola pribatuez gain, XX. mendean hezkuntza publikoa garatu zen. Herri bakoitzak eskola publikoa dauka, baita auzo hauek ere: Aritzakun, Orabidea, Beartzun, Iruritako Baigorri, Olaberria...

Herriko eskolek, eraikin publikoak direnez, funtzio zenbait dituzte. Nabarmenak izanen dira eskola eta frontoi publikoa elkartzen dituzten eraikinak, Irurita, Berroeta edo Gartzainen bezala.

Escuelas

La educación tuvo una gran importancia en el desarrollo económico y social de Baztan. En el siglo XVIII, vecinos de Baztan que se habían enriquecido en Madrid o en las colonias americanas crearon fundaciones para impulsar la educación en Baztan, facilitando que baztandarras entraran en la Corte de Madrid o el funcionariado del Reino. En el caso de Tiburcio de Hualde de Irurita exigía profesores que enseñaran en euskera y castellano. Junto con estas fundaciones, jesuitas y franciscanos crearon diferentes escuelas en Baztan.

Las fundaciones tendrán continuidad en los siguientes siglos. Así, en el siglo XX, junto al Colegio de Lekaroz (el primer colegio de Navarra donde se impartían clases en euskera), la familia Urrutia creó dos colegios en Oronoz. También habrá numeroso colegios religiosos: en Elizondo, en el barrio de Etxerri, en el convento de Oharriz…

Además de las escuelas privadas, en el siglo XX se desarrolla la educación pública. Cada pueblo tiene su escuela pública así como numerosos barrios: Aritzakun, Orabidea, Beartzun, Baigorri de Irurita, Olaberria…

Las escuelas públicas cumplían también otras funciones. Destacan las construcciones que aúnan escuelas y frontones, como en el caso de Irurita, Berroeta o Gartzain.

Maringo argi-zentrala *Central hidroeléctrica Marin*

Zentral hidroelektrikoak

Argia XX. mende hasmentan ailegatu zen Baztanerat. Hemengo errotei dinamo edo alternadore bat paratzen zitzaien eta herriko bonbillak pizteko argi indarra sortzen zuten.
Elizondon, Muniartea zubi ondoan zegoen errota argi zentral bihurtu zuten eta herriko lehendabiziko argi publikoak paratu zituzten.
Errotak eta argi publikoak alde batera utzita, Gipuzkoako industria berriak bultzatu zituen Baztan-Bidasoan sortu ziren zentralak. Baztango errekak eta mendiak aprobetxatu zituzten zentral gehiago egiteko. Maringo zentrala 1912an eraiki zuten, eta Mugairikoa 1920an. Garai berean Agozpeko zentrala eraiki zuten, gaur egun

Centrales hidroeléctricas

La electricidad llegó a Baztan a comienzos del siglo XX. A los molinos existentes se les añadieron dinamos o alternadores para iluminar las bombillas de los pueblos.
En Elizondo, el molino situado junto al puente Muniartea fue transformado en central hidroeléctrica y se instalo el primer alumbrado público del lugar.
Dejando a un lado los molinos y alumbrados públicos, la nueva industria de Gipuzkoa impulsó muchas centrales en la zona de Baztan-Bidasoa. Aprovecharon los montes y riachuelos de Baztan para la construcción de centrales hidroeléctricas. En 1912 se construyó la central de Marín, y en 1920 el de Mugaire. En esa misma época se construyó también la central de

Agozpeko zentrala eraiki zuten, gaur egun Baztanek daukan zentral publiko bakarra. Zentral hauen funtzionamendua errotaren funtzionamenduaren antzekoa da: errekako ura kanal baten bitartez desbideratzen da eta urak presioa hartzeko desnibel handiko ubide baten bitartez zentralerat jaisten da. Zentralean urak turbinak mugitzen ditu eta turbinak berriz alternadoreak. Gaur egun Baztango zentral gehienek martxan jarraitzen dute, nahiz tresneria guztiz berrituak izan eta erabat automatizatuak egon.

Agozpe, actualmente la única central pública de Baztan.
El funcionamiento de estas centrales es similar al de los molinos: a través de canales se desvía el agua de los riachuelos a tubos con gran desnivel que proporcionan una gran presión. El agua baja y mueve las turbinas que a su vez mueven los alternadores. Hoy día gran parte de estas centrales siguen activas, aunque las máquinas han sido modernizadas y automatizadas.

Elektra (Urdazubiko errota) *Electra (Molino de Urdazubi)*

Mugaireko zentral hidroelektrikoa *Central hidroeléctrica de Mugaire*

Sinismenak, bestak eta kirolak

Megalitoak

Baztango lepo edo pasabideetan dauzkagun gizakiaren lehen aztarnak megalitoak dira.
Baztango megalitoek 5.000 - 2.000 urte dituzte, hileta-monumentuak dira eta bertako lehenbiziko ekoiz- leek (abeltzainek, nekazariek, meatzariek…) eraiki zituzten. Monumentu horiek gehienbat mendi lepoetan badaude ere, beheitiko lurretako baso eta eremuetan ere baditugu. Oro har, megalitoak multzoetan egoten dira eta megalito klase ezberdinak elkartzen dituzte.
Megalitorik zaharrenak trikuharriak edo mairu harriak eta tumuluak edo harrizko mukuru biribil handiak dira. Hilobi kolektibo hauek 6-12 metroko diametroa eta 0,5-2 metroko garaiera dute. Kalkolito eta Brontze Aroetan zehar ausarki hedatu ziren Baztan-Bidasoan. Ekialderantz zuzenduak, haietan hilen gorpuzkinekin batera "hatu", hau da, harrizko eta metalezko armak, lanabesak, apaingarriak, zeramikak… paratzen zituzten, ziur aski bertze bizitza baten itxaropenean.
Trikuharriek eta tumuluek itxura eta tamaina bertsuak dituzte, baina trikuharriek hil-ganbara bana erakusten dute, ez ordea tumuluek.
K. a. azken milurtekoaren erdi aldean (Burdin Aroan) eta indoeuroparren hondar etorrerarekin batera, gure mendietan errausketa erritua zabaldu zen eta horren lekuko mairu harriak edo harrespilak,

Creencias, fiestas y deportes

Megalitos

Los rastros humanos más antiguos en Baztan son los monumentos megalíticos que encontramos en las montañas y sus collados.
Los monumentos megalíticos en Baztan tienen una antigüedad de entre 5000 y 2000 años. Son monumentos funerarios de los primeros habitantes productores (pastores, agricultores, mineros…). La gran mayoría de estos monumentos se encuentran en los collados montañosos, si bien también los hay en zonas boscosas del valle. Generalmente los megalitos forman grupos en los que hay tipologías diferentes.
Los megalitos más antiguos son los dólmenes y los túmulos circulares, enterramientos colectivos con un diámetro de 6-12 metros y 0,5-2metro de altura. Se construyeron muchos en Baztan durante el Calcolítico y la Edad de Bronce. Los cadáveres se enterraban mirando al oriente y junto a su "hatu": armas de piedra y metal, herramientas, adornos, cerámica… seguramente con la esperanza de usarlas en el más allá.
Los dólmenes son similares a los túmulos en aspecto y tamaño, pero al contrario que los túmulos poseen una gran losa de piedra a modo de techo.
En la segunda mitad del último milenio antes de Cristo (Edad de Hierro), junto con la última llegada de pueblos indoeuropeos, se extendió el rito de la incinera-

harriz eginiko biribilak eta tumulu txikiak ditugu. Horien erdi-erdian hildakoaren errautsen zati bat pausatzen zuten. Neurri ezberdinekoak, 2-12 metroko diametrokoak, batzuk tumularrak, bertzeak mukuru apalekin edo gabe, harri handiz edo txikiz egina.

Zutarriak edo menhirrak arestian aipatutako garai guzietan izan ziren. Botere ekonomiko eta militarraren erakusleak ziren, lurraren jabetzaren ikurrak edo garaiko pertsonaia ospetsu eta nagusien irudiz eginak.

ción y la construcción de crómlechs o círculos de piedra, así como de pequeños túmulos. Las cenizas de los difuntos se depositaban en el centro de estos monumentos. Tienen tamaños muy diversos, entre 2 y 12 metros; algunos tumulares y otros sin túmulo; rodeados de grandes piedras y otros más modestos.

Los menhires los encontramos en todas las épocas antes mencionadas. Eran símbolos de poder económico y militar, símbolos de un territorio o imágenes de figuras de gran poder.

Zutarria
Menhir

Trikuharria *Dolmen*

Tumulua *Túmulo*

Harrespila *Cromlech*

Mitologia

Lamiak emazteki eder baten itxura du gorputzaren erditik goiti, eta arrain tankera, izokiarena hain zuzen, gerritik beheiti. Lamiak biziki atsegin du urrezko orrazi batez bere adats ederra orraztea, erreka bazter batean. Erreka putzuetan bizi ohi da (Xorroxinen, Arizkungo Lamiarritan…). Azpilkuetako lurretan, Meatzeta alderdian, behiala bi emakume lurperatu omen zituzten, biak lamiak ziren, eta tradizioaren arabera toki horretan sortzen omen dira ekaitz guztiak.

Sorgiñak emakume maltzurrak ziren aintzin-aintzinean. Hori da behinik behin, Baztango kondaira anitzetan kontatzen dena: haurrak bahitu eta Infernuko errekako lezeetara (Orabi-dean) eramaten zituztela.

Basajaun basoko jauna da, gizon handi eta izugarri baten itxura duena. Gorputza ilez estalia du, adatsa belaunetaraino iristen zaio, eta aurpegia, bularraldea eta sabela ia guztiz tapatzen dizkio. Kondairek eta ipuinek diotenez Basajaunek eraiki zituen gure inguruko megalitoak. Basajaun da ekaitza datorrelarik artaldea babesten duena. Deiadar egiten die artzaiei artaldea babesteko eta ez dio otsoari hurbiltzen uzten. Ardiek joareak batera mugitzen adierazten dute Basajaunen presentzia. Jeinuaren babesarekin lasai egon litezke artzaiak, otsoa ez da hurbilduko eta.

Mitología

***Lamia** es un ser mitológico, mitad mujer y mitad pez. De cintura para arriba es una doncella de gran belleza y, de cintura para abajo, tiene cuerpo de cola de salmón. A las Lamias les gusta peinarse con un peine de oro a la orilla de un riachuelo. Suelen vivir en los pozos y manantiales (Xorroxin o Lamiarrita de Arizkun, por ejemplo). Cuenta la leyenda que en el lugar de Azpilkueta, en el paraje de Meatza, enterraron a dos mujeres hace mucho tiempo. Estas mujeres eran lamias, y es por ello que es de ese lugar de donde, se dice, surgen todas las tormentas.*

***Las Brujas** eran mujeres malvadas que, como cuenta la tradición oral de Baztan, secuestraban antiguamente a los niños y se los llevaban a las cuevas que hay en la regata del Infierno (en el paraje de Orabidea).*

***Basajaun** es el señor del bosque, personaje de gran tamaño con el cuerpo cubierto de un pelo que le llega hasta las rodillas y le tapa la cara, el pecho y el vientre. Según leyendas y cuentos del lugar, el Basajaun construyó los monumentos megalíticos. Basajaun es el que protege a los rebaños cuando se acerca la tormenta. Da un grito para avisar a los pastores que retiren su ganado evitando así que el lobo se acerque. Las ovejas anuncian la presencia de Basajaun con una simultánea y colectiva sacudida y con el sonido de sus cencerros. Con la presencia del genio los pastores saben que pueden estar tranquilos, el lobo no irá a molestar su rebaño.*

Xorroxin

Santa Ana (Urtsua-Arizkun)

Elizak, baselizak eta hilerriak

Elizak herri erdialdean daude eta eraikin nagusi gisa hartzen ahal ditugu. Herrialdeko elizak XVI., XVII. eta XVIII. mendeetakoak dira; Erdi Aroko eliz gehienak arras zaharberrituak daude. Barnean gordetzen dituzten artelan batzuk arras nabarmenak dira, batez ere XVIII. mendean Madrildik ekarritako artista famatuen eskulturak (Iruritako amabirjina, Juan Domingo Olivieri egindakoa). Eraikin aldetik nabarmenak dira Zigako elizaren fatxada edo Arizkungo Aingeruen Andre Mariaren Monasterioa. Mendietan eta inguruko auzo gehienetan baselizak harra-

Iglesias, ermitas y cementerios

Las iglesias se encuentran en los centros de los pueblos a modo de construcción principal. La gran mayoría de las iglesias son de los siglos XVI, XVII y XVIII, casi todas las iglesias medievales han sido muy transformadas. Algunas obras de arte que encontramos en el interior de estas iglesias tienen un gran valor, sobre todo aquellas que se trajeron de Madrid en el siglo XVIII, obras de grandes artistas (las Virgen del Rosario de Irurita, obra de Juan Domingo Olivieri). En cuanto a los edificios, destacan la fachada monumental de Ziga o el monasterio de Santa Maria

Hilarriak *Estelas funerarias*

patzen ditugu. Eraikin ttipiak eta xumeak, baina paraje ederretan. Hilerriak elizen barnean egoten ziren. Hilobien kokapenak familiaren egoera soziala adierazten zuten: aldare aitzinean familia aberatsenak; gibelean berriz, behartsuenak. XIX. mendean hilobiak elizaren inguruan paratzen hasi ziren, hilarri diskoideoaren ohitura zaharra berreskuratuz. XX. mendean hilerriak herritik kanpora ateratzen hasi ziren osasun kontuengatik.

Argizaiola argizaria kiribilduz biltzeko eta hildakoen aldeko erlijio ospakizunetan zehar piztua mantendu dadin erabili ohi den zurezko taula da. Laua edota apaindua izan liteke.

de los Angeles de Arizkun.

También encontramos ermitas en los montes y en la mayoría de los barrios. Construcciones pequeñas y sencillas situadas en parajes de gran belleza.

Antiguamente los enterramientos se realizaban en el interior de las iglesias. La situación de las tumbas marcaban el estatus social de las familias: frente al altar las familias más ricas, las más pobres en la parte posterior. En el siglo XIX los enterramientos se realizan en la parte exterior de las iglesias, recuperando la tradición de las estelas discoideas. Ya en el siglo XX los cementerios son construidos fuera del casco urbano por cuestiones de salud.

La "argizaiola" es una pieza de madera lisa o decorada con una vela de cera enrollada que se enciende en celebraciones religiosas dedicadas a los difuntos.

Argizaiola

Zigako eliza *Iglesia de Ziga*

Erraldoiak *Gigantes*

Bestak, eta inauteak

Herriko bestak eta eliza kristauaren bestak alde batera utzita, oraindik baditugu Baztango folklorean nekazaritza munduarekin eta naturarekin lotutako bestak: neguaren akabailan, udaberrian eta emankortasunaren hasmentan (Maiatzeko Erregina), San Juan gaua eta udako solstizioa... baita auzolanaren ondotik eta baserriko lanen ondotik ospatzen ziren bestak ere. Besta hauen artean ospe handia daukate bertako Inauteek. Garizuma aitzineko bestak ez ezik, bertan neguaren akabaila eta udaberriaren ailegatzea ospatzen dira. Inauteetan auzokideak mozorrotzen dira eta mozorroen artean herritarrak izutzen dituzten pertsonaia maltzurrak daude (Arizkungo hartza…). Famatuak dira baita Erratzuko Damak; asotsaren bitartez gaitzak uxatzen dituztenak.

Fiestas y carnavales

Dejando a un lado las fiestas patronales y aquellas relacionadas con la religión cristiana, aun perdura en el folclore de Baztan fiestas relacionadas con la naturaleza y el mundo rural: el fin del invierno y la llegada de la primavera y la fertilidad (la Reina de Mayo), la noche de San Juan y el solsticio de verano… así como fiestas relacionadas con el trabajo comunitario y la celebración del termino de algún trabajo en el caserío.

Dentro de estas fiestas, tienen gran fama en la comarca los carnavales ("inauteak"). Además de ser una fiesta previa a la cuaresma, también se celebra el final del invierno y la llegada de la primavera. Los vecinos se disfrazan y entre los disfraces encontramos algunos personajes malignos que asustan e increpan al resto de los vecinos (el oso o "hartza" de Arizkun). También son famosas las "damak" de Erratzu; que a través del ruido asustan a los malos espíritus.

Inauteak *Carnavales*

Sagardantza

Baztango dantzak

Mutil-dantzak dira Baztan Ibarreko dantza adierazgarrienak. Dantzariak biribil irekian dantzatzen duten dantzak dira, erlojuko gezien norabidearen kontrakoan. Korroaren erdian txistularia eta atabala-jotzailea jartzen dira, eta dantzariak interpretatzen duten musika jotzen dute. 19 dantza dira guztira.

Tradizioan, Ibarreko jai-egunetan eta bileretan dantzatzen ziren mutil-dantzak, eta zenbaitetan, baita aldamenekoekin egindako lanen baten edo auzolanen baten ondorioz sorturiko festetan ere, beti modu naturalean. Gaur egun, herri bakoitzeko jaietan egiten dute dantza.

Irri-dantzak edo jostaketa-dantzak ere esaten diete, eta Baztan bailaran talde horretako 12 dantza-jolas daude bizirik. Nekazariek urteko hainbat garaitan eta egiten zuten lan komun eta solidarioa da dantza-jolason jatorria. Hainbat helburu

Bailes de Baztan

Las "mutil-dantzak" son los bailes más representativos del Valle de Baztan. Son unos bailes en los que "dantzaris" bailan en corro abierto y en el sentido contrario a las agujas del reloj, situándose en el centro del mismo el "txistulari" y el "atabalari" que tocan la música. Estas danzas constituyen un repertorio de 19 bailes.

Tradicionalmente estas "mutil-dantzak" se bailaban los días festivos y en reuniones de valle, y ocasionalmente en fiestas surgidas de algún trabajo vecinal o "auzolan", siempre de manera espontánea. Hoy en día se bailan con ocasión de las fiestas patronales de cada pueblo.

En Baztan perduran 12 "irri-dantzak" o "jostaketa-dantzak", El origen de estas danzas-juego se encuentra en el trabajo común y solidario que los labradores realizaban en diferentes épocas del año y con diversos objetivos: el deshoje del maíz, la

zituzten: artoari hostoak kentzea, kareharrobietan karea fabrikatzea eta egurra biltzea. Dibertitzeko hainbat unetan ere dantzatzen zituzten, bazkari garrantzitsu edo ezkontzetan, esaterako.

Bereziki azpimarragarria da Sagar-dantza, tradizio luzea baitu Ibarrean, Arizkunen esaterako, askotan dantzatzen baitzen bertan. Lauko taldeetan dantzatzen da, sagarrak eskuan hartuta.

fabricación de cal en las caleras, la recogida de la leña, así como cualquier otro momento de diversión, como puede ser el final de una comida importante o una boda.

Merece hacer una mención especial a la "sagar-dantza" o danza de la manzana, que tiene gran arraigo en Baztan, sobre todo en poblaciones como Arizkun, donde se interpreta con asiduidad. El baile lo realizan en grupos de cuatro, con manzanas en las manos.

Txistulariak

Urriko feriak

Elizondon izaten dira, San Lucas jaiaren osteko ortziralean eta larunbatean.
Ortzirala izaten da egun nagusia, abereek Merkatu Plaza hartzen baitute. Hala ere, gero eta abere gutxiago biltzen dira, eta horien lekuan, nekazaritzako lanabesak eta makinak, eskulanak, osagarriak eta garaiko eta herrialdeko gastronomia produktuak saltzen dituzten saltokiak ugaritzen dira. Herriko kale nagusiak saltokiz gainezka izaten dira, eta abere kopurua gero eta txikiagoa bada ere, saltokiak gero eta gehiago dira urtetik urtera. Egun honetan, azoketako ohiko menua eskaintzen dute inguruko jatetxeek: txitxirioak azarekin eta usoa saltsan, gehienetan.
Larunbatari "atsoferie" erraten diote, emakumeen azoka, alegia. Antzina, ortziraletan produktuak behatu eta konparatzen omen zituzten eta ondoren, larunbatean joaten ziren erostera. Egunotan, eskupilota partidak eta herrikirol erakustaldiak izaten dira.

Feria de octubre

Se celebran en Elizondo el viernes y sábado siguientes al día de San Lucas.
El día fuerte es el viernes cuando, el ganado ocupa la Plaza del Mercado. Aunque su presencia va disminuyendo paulatinamente, dejando paso a los puestos callejeros que comercian con productos de todo tipo como maquinaria agrícola, artesanías, accesorios o productos gastronómicos típicos de la época y de la zona. Prácticamente rebosan en las calles principales del pueblo. Este día los restaurantes de la zona, ofertan el que se denomina el menú típico de ferias compuesto en la mayoría de los casos por garbanzos con berza y paloma en salsa.
El sábado se conoce como "atsoferie", término que significa feria de mujeres, conocido así porque antiguamente las mujeres ojeaban y comparaban los productos el viernes, y era el sábado cuando se decidían a hacer las compras pertinentes. Estos días se completan con partidos de pelota a mano o exhibiciones de deporte rural.

Behi pirenaikoa
Vaca pirenaica

Ardi latxa
Oveja latxa

Baztandarren Biltzarra

Baztandarren Biltzarra baztandarren arteko senidetasun jai handia da. Udan egiten da, baina ez egun finko batean (Elizondoko jaiegun nagusia den Done Jakue egunaren, uztailaren 25a, aurreko igandean ospatu ohi da). Elizondon egiten da ibarrean egiten den jai adierazgarrien hori. 1963an hasi zen egiten. Orgen desfilea izaten da bestaren izpiritua eta ekitaldi nagusia.
Desfilearen ondoren, mutildantza egiten da Udaletxe plazan, txistu soinuan. Gero dantzari gehiago aritzen dira melodiak aurrera egin ahala. Goiza amaitzeko, herri bazkaria egiten da Merkatu plazan. Egun osoan zehar, artisautza eta bertako produktuak ikusteko eta erosteko postuak jartzen dira. Horretaz gain, musika talde batzuk aritzen dira.

Baztandarren Biltzarra

Baztandarren Biltzarra es la gran fiesta de hermandad que los habitantes del Valle de Baztan celebran sin fecha fija en verano (normalmente el domingo anterior al día de Santiago, el 25 de julio, día grande de las fiestas de Elizondo). Elizondo sirve de escenario para este festejo que sin duda es el más representativo del valle y que se realiza desde 1963. El desfile de carrozas es el espíritu y principal actividad de la fiesta. Después del desfile se bailan las "mutil-dantza" al son del txistu frente al ayuntamiento.
La mañana culmina con una comida popular en la plaza del Mercado. Durante todo el día, se instalan en las calles puestos de exposición y venta de artesanía y de productos de la tierra, y se suceden actuaciones de diversos grupos musicales.

Orga
Carroza

Euskal pilota eta herri kirolak

Euskal pilotan joko ezberdinak garatzen dira, baita pilotalekuak ere. Hasmentan, laxoan, euskal pilotaren modalitaterik aintzinakoenan, ez zen frontoirik behar. Gero pareta bakarreko frontoiak eraiki ziren. Frontoiari ezkerreko pareta gehitu zitzaion eta aldi berean trinketeak egin ziren. Pilotaleku berriekin pilotaren kirol berriak sortu ziren: larruzko eskularruak txistera arin bihurtu, zurezko pala ezberdinekin jokatu (paleta, pala, pala motza, pala luzea...) eta eskupilota kirolen errege bihurtuko da.
Bertze alde batetik, baserriko lanak zirenak herri kirolak bihurtu ziren: aizkorarekin edo arpanarekin oihaneko lanak, segarekin moztea, pisuak eramatea edo idiekin egiten ziren lanak.

Pelota vasca y deportes rurales

Dentro de la pelota vasca hay una gran variedad de modalidades, también de frontones. En un principio la "laxoa", una de las modalidades de pelota vasca más antiguas, se jugaba sin frontón. Después se añadirá un muro o frontis y con el tiempo al frontis se le añadirá una pared en el lado izquierdo y surgirá también el trinquete. Los nuevos frontones crean nuevas modalidades de pelota: los guantes de cuero se sustituyen por guantes o "txisteras" de mimbre, surgen todo tipo de palas de madera (paleta, pala, pala corta, pala larga…), y la pelota-mano se convertirá en deporte rey.
Por otro lado, las labores tradicionales del caserío se convierten en deportes rurales: labores que se realizan con hacha o sierra tronzadora, el corte con guadaña, levantar pesos o labores que se realizaban con bueyes.

Palak

Xarea

Txisterak

Laxoa

Laxoa euskal pilota modalitaterik zaharrena da. XVIII. eta XIX. mendeko kroniketan jada agertzen dira modalitate horri buruzko erreferentziak, eta "kirol errege" gisa jotzen zuten Nafarroako Erresuma Zaharraren garaian. Gaur egun, Baztango eta Malerrekako haranetan bakarrik jokatzen da. Modalitate hau atzentzen joan zen pixkana- pixkana, harik eta 1960. eta 1964. urteen artean txapelketak antolatu zituzten artio. Gaur egun urtero antolatzen dira txapelketak.

Antzinako artzainek laxo partidak pilotasoroetan (soropiletan, belarra ebaki ondoreneko lursail lauak) jokatzen zituzten. Egun, ordea, 50-70 metro luze eta 12-20 metro zabal den zelai angeluzuzen batean jokatzen dute. Zelaiaren aldeetako bat mugatua dago eta "errebote" izeneko pareta dago bertan. Zelaia bi erdi edo eremutan banatzen da arrasto baten bidez, eta eremu horietako bakoitzean talde bat

"Laxoa"

También conocido como Guante, "laxoa" es la modalidad de pelota vasca más antigua de las que perduran actualmente. Ya en las crónicas de los siglos XVIII y XIX, aparecen referencias de esta modalidad, considerada como "deporte rey" en la zona, en la época del Viejo Reino de Navarra.

Hoy en día solo se conserva en Navarra, concretamente en los valles de Baztan y Malerreka. Esta modalidad fue progresivamente olvidada hasta que, entre los años 1960 y 1964, se organizaron campeonatos entre los pueblos de las zonas antes nombradas. Actualmente se siguen celebrando campeonatos.

Se sabe que antiguamente los pastores eran capaces de organizar un partido de "laxoa" en cualquier "soropil" (terreno llano en el que se había cortado la hierba). Hoy en día, sin embargo, la "laxoa" se practica en un campo rectangular de 50 a

kokatzen da. Zelaiaren bazterrak ere mugatuak daude "eskas" izeneko arrasto batzuen bitartez. Sakean bota-harria erabiltzen da.
Udan Iruritan, Arraiozen, Donezteben eta Oitzen laxo partidak ikusteko aukera badago.

70 metros de largo y de 12 a 20 metros de ancho aproximadamente, y que es limitado en uno de sus extremos por una pared que se denomina rebote. El campo se encuentra dividido por una línea central en dos mitades, en cada una de las cuales se colocan cada uno de los equipos contrincantes. Los laterales también quedan delimitados por unas líneas llamadas "eskas". Para el saque se utiliza la "bota-harria".
En verano tenemos la oportunidad de ver partidos de laxoa en Irurita, Arraioz, Doneztebe y Oitz.

Pilota

Eskularruak

Eskularruak

Arraia

Bota-harria

Baztango herriak

Lugares de Baztan

Baztango Udaletxea
Ayuntamiento de Baztan

Baztango antolamendua

Baztango herriak, edo Lekuak, Unibertsitate erregimena dute; beraz, haran osoak udal-barruti bakarra osatzen du. Ildo horretan, ibarreko herri-lurrak kudeatzen dituen Batzar Nagusiaren Ordenantzen atarikoan Baztanen hamabortz leku biltzen direla erraten da, eta ez Baztan hamabortz lekuen batasunak osatzen duela.

Baztan lau alderdi edo kuarteletan banatuta dago. Kuartel bakoitzak herri talde bat biltzen du: Baztangoiza (Amaiur, Arizkun, Azpilkueta eta Erratzu), Elizondo (Elbete, Elizondo, Gartzain eta Lekaroz), Erberea (Arraioz, Irurita eta Oronoz). Basaburua (Almandoz, Aniz, Berroeta eta Ziga),

Baztango Batzar Nagusia da erakunde gorena, politikoki nahiz administratiboki. Mendeetan zehar sortuz joan diren ordenantza komun propioak ditu. Batzar Nagusia eta baztandar guzion armarria Baztango berezitasun nagusiak dira.

Organización de Baztan

Los pueblos, también llamados Lugares, de Baztan tienen régimen de Universidad; por tanto todo el valle está integrado en un único municipio. Según las Ordenanzas de la Junta General que gestiona los terrenos comunales, Baztan está constituido por quince pueblos, no por la unión de quince pueblos.

Baztan está dividido en cuatro cuarteles. Cada cuartel cuenta con varios pueblos: Baztangoiza (Amaiur, Arizkun, Azpilkueta y Erratzu); Elizondo (Elbete, Elizondo, Gartzain y Lekaroz); Erberea (Arraioz, Irurita y Oronoz); y Basaburua (Almandoz, Aniz, Berroeta y Ziga),.

El organismo político y administrativo supremo es la Junta General de Baztan. Tiene sus propias ordenanzas comunes que han ido elaborándose a través de los tiempos hasta nuestros días. La Junta General y el escudo de todas y todos los baztandarras son las principales peculiaridades de Baztan.

Baztango herriak *Lugares de Baztan*

Almandoz

Altitudea: 450 metro.
Biztanleria 2019an: 180 biztanle.

Udalerriko herririk hegoaldekoena da. Iruñetik 34 km-ra dago. N-121-A errepidean barna etorrita eta behin Belateko tunela eta Almandozko tunela igaro ondoren eta errepidea maldan behera doala, Almandoz lehenbiziko baztandar herria da, eta errepidearen ezkerraldean dago.
Herrigunea Loibeltz edo Santa Barbarako mendiaren magalean, itsasoko mailatik 450 metroko garaieran dago, haranako herririk altuena izanik
Herrira jaitsita, ohartuko gara herritarrek anitz zaintzen eta garbitzen dituztela karrikak eta etxeak. Horren lekuko ditugu ostatuaren ezkerraldean dagoen Etxatoa Etxearen fatxadako apaingarriak, Fernando Agerrek egina: artisautza eta arkitektura bat eginda.
Almandozen Galtzaga Jauregia dago, XVIII. mendeko oinetxea. Gaur egun erabat berritua, eta ostatu bihurtua.

Almandoz

Altitud: *450 metros.*
Población en 2019: *180 habitantes.*

Es el pueblo más meridional del municipio. Se encuentra a 34 km de Pamplona. Para llegar a él a través de la N-121-A hay que cruzar el túnel de Belate y luego el desvío que nos encontramos a la salida del túnel de Almandoz. El pueblo queda a la izquierda de la carretera.
El núcleo urbano se extiende en las faldas del monte Loibeltz o Santa Barbara. Situado a 450 metros de altitud, es el pueblo a más altura de Baztan.
Bajando al pueblo apreciamos como sus gentes ponen esmero en el cuidado y limpieza de casas y calles. Prueba de ello encontramos en la ornamentación realizada en la fachada de la Casa Etxatoa (a la izquierda del establecimiento hostelero) realizada por Fernando Aguerre, donde artesanía y arquitectura se hacen una.
También podemos visitar Jauregia, palacio cabo de armería de nómina antigua.

Jauregia ere bisitatzen ahal dugu. Jauregia antzinako zerrendetan ageri zen oinetxea da. Ezkerralde murriztuko armarri du; kasketa ezkerretara begira dago, sasikotasuna adieraziz. Armarria arras xumea da; beraz, pentsa dezakegu arras antzinakoa dela.

Parrokia-eliza berria San Pedroren omenez eraiki zuten.

Ospetsuak dira herriko gainekoaldean aurkitzen diren harrobiak eta Belateko paraje ederrak.

Herriko Bestak ekainean izaten dira, Gorpuzti Egunean.

Posee un escudo siniestrado cuyo casco se orienta a la izquierda como símbolo heráldico de bastardía. La sencillez del escudo incita a pensar que se trata de un motivo de gran antigüedad. En Almandoz se encuentra el palacio Galtzaga, palacio cabo de armería del siglo XVIII, totalmente restaurado y convertido en la actualidad en establecimiento hostelero.

La iglesia parroquial de reciente construcción está dedicada a San Pedro.

Son famosas las canteras situadas en la parte alta del pueblo y los hermosos parajes de Belate.

Las fiestas patronales se celebran en Corpus Christi (Mes de junio).

Amaiur

Altitudea: 281 metro.
Biztanleria 2019an: 257 biztanle.

Iruñetik 58 km-ra dago. Herrira heltzeko N-121-B errepidea hartu behar da, eta Otsondo mendatea igotzen hasita, eskuinera dagoen desbideratzean herrira eramanen gaitu.
Amaiur 1665ean banandu zen Baztandik, eta 1969an, alegia, hiru mende gerora, berriz ere bat egin zuen Baztanekin.
Herriaren sarreran arkua dago, herriaren ataria; herrigunearen muga adierazten du. Arkua baino lehen XVII. mendebukaerako gurutzarria dago.
Amaiur ohiko karrika-herria da, kilometro erdiko luzeran hedatua. Etxeen aitzinaldeak ez daude lerrokatuta, eta ez dira denak berdinak; hartara, karrikaren monotonia hausten da, eta perspektiba ezin hobeak ematen ditu. Amaiurko etxeak arkitekturaz anitzak eta aberatsak dira; izan ere, ibarreko kategoria tipologiko gehienak ageri baitira bertan.

Amaiur

Altitud: *281 metros.*
Población en 2019: *257 habitantes.*

Se encuentra a 58 km de Pamplona. Llegamos por la N-121-B y cuando comenzamos a subir el puerto de Otsondo, un desvío a la derecha nos lleva a Amaiur.
La Villa de Amaiur se separó del Valle el año 1665 y se anexionó nuevamente tres siglos más tarde, en concreto, en 1969.
La entrada a la localidad está flanqueada por un arco de entrada que cumple las funciones de portal, contribuyendo a definir los límites del espacio urbano. Antes de este arco encontramos un crucero de finales del siglo XVII.
Amaiur es un ejemplo típico de pueblo calle, de no más de medio kilómetro de longitud. La falta de alineación y uniformidad de sus fachadas evita la monotonía y permite la obtención de magníficas perspectivas. Su caserío ofrece gran variedad y riqueza arquitectónica, ya que aparecen la mayoría de las categorías tipologías del

Bertzalde, ondoren aipatzen diren etxeen eta jauregien jauregi-arkitekturaren itxura nabarmendu beharra dago: Arretxea jauregia (45. zenbakia), XVI. mendean nagusia zen. Borda jauregia 1728an lortu zuen oinetxe kategoria. Arriada etxean batzarrak egiten ziren XVI. mendean.

Hala ere, Amaiurko lekurik aipagarriena monolitoa da, inolako zalantzarik gabe. Monolitoa Nafarroako dinastiak bere lurraldea berreskuratzeko egin zuen azken ahaleginaren oroigarria da. Naxerako Duke eta Leringo Konde beaumondarren armadek gogor setiatu zuten gaztelu zaharra artilleria baliatuta. Jaime Velaz Medrano alkaidearen agindupean zeuden soldadu-talde agramondarrek gaztelua adore handiz defendatu bazuten ere, 1522an guztiz suntsitu zuten.

Armarrian ezkila baten irudia ageri da, ibarrekoan ez bezala; honetan xake irudia baizik ez baita ageri. Erraten dute ezkilak Nafarroako Erregeak Lapurdirekiko mugan zuen zaintzailea adierazten duela. Erraten dute, halaber, Gazteluan zeuden soldaduei herriko aferen eta gorabeheren berri ematen zien ezkilaren oroigarria dela armarriko hori.

Herriko eliza, Jasokundearena, Erdi Arokoa da, XVI. eta XVIII. mendeetan hainbat aldiz berreraikia. Elizak "*Cavaillé-Col*" organo erromantiko ederra du.

Herriko bestak abuztuaren 15ean dira, Jasokundearen Ama Birjinaren omenez.

valle.

Hay que resaltar el empaque de la arquitectura palaciega que podemos observarla en las siguientes casas y palacios: Palacio Arretxea (número 45), principal palacio en el siglo XVI. El palacio Borda obtuvo la categoría de cabo de armería en 1728. En la casa Arriada se celebraban los "batzarres" en el siglo XVI.

Pero sin lugar a duda el lugar más emblemático de Amaiur es el monolito que evoca el último intento de la dinastía navarra por recuperar su territorio. Su antiguo castillo, asediado encarnizadamente por el ejército y la artillería del Duque de Nájera y del Conde de Lerín, beaumonteses, fue defendido con obstinado heroísmo por la guarnición agramontesa a cargo del Alcaide Jaime Velaz de Medrano, hasta que fue totalmente destruido en 1522.

El emblema de la villa, a diferencia de la del resto del valle que es un ajedrezado, es una campana. Se dice que la misma simboliza el centinela del rey navarro ante la frontera francesa de Lapurdi. Se dice también que se trata de un recuerdo de la campana que servía de aviso a la fuerza residente en el castillo para ponerlos al corriente de acontecimientos populares y civiles de la villa.

La Iglesia de la localidad, Iglesia de la Asunción, de origen medieval, ha sido reconstruía varias veces en los siglos XVI y XVIII. La iglesia posee un precioso órgano romántico "Cavaille-Coll".

Las fiestas patronales se celebran el 15 de agosto.

Borda

Arretxea

Herriko Etxea

Arriada

Jauregia

Armarria
Escudo

Baztango herriak *Lugares de Baztan*

Amaiurko errota

Amaiurko errota iraganeko jarduera gogorarazten dio bisitariari. Herriko etxe dotore baten beheko solairuan dago. Hala nahi izanez gero, taldeek errota eta bere funtzionamendua ezagutzeko parada dute, antolatzen diren bisita gidatuei esker. Horrez gain, hango talo gozoak dastatzen ahal dira. Partikularrek errota bisitatu nahi izanez gero, taloak dastatzeko ezarri den ordutegian egiten behar dute. Gainera, errotan saltzen da han ekoizten den irina.

Molino de Amaiur

El molino de Amaiur recuerda al visitante su actividad pasada. Se sitúa en la planta baja de una coqueta casa rural. Los grupos que lo deseen pueden conocer en profundidad el molino y su funcionamiento gracias a las visitas guiadas que se organizan, además de degustar los exquisitos talos (tortas de harina). Si los particulares desean acceder al molino, pueden hacerlo también en el horario de degustación de talos. En el molino se vende además la harina que produce.

Gaztelua *Castillo*

Aniz

Altitudea: 376 metro.
Biztanleria 2019an: 74 biztanle.

Iruñetik 37 km-ra dago. Herrira heltzeko NA-2540 errepidea hartu behar dugu, Iruritatik barna, Frantzia aldetik etorrita. Bertzenaz, Iruña aldetik etorrita, Almandozko tunelaren irteeran dagoen desbideratzea hartu behar da.
Jasokundearen elizaren harrizko eskaileretan elementu berezia topatuko dugu: disko-formako hilarria. Estela diskoideoak hareharrizko harrietan landutako hilobi-monumentuak dira, oro har beheerliebe teknikaz landuak. Bi dira gehien errepikatzen diren gaiak: gurutzeak, arrasto paraleloz eratuak, eta besoetan eguzki-formako kiribildunak, eta Salomonen zigilua. Harri horiek lurrean sartzen zituzten zutik, hildakoen hilobien buru, eta, gehienetan, sortaldera begira. Erran beharra dago gaur egun bakar bat ere ez dagoela bere jatorrizko lekuan. Batzuk herritik kanpokoak dira, beharbada bat-bateko

Aniz

Altitud: *376 metros.*
Población en 2019: *74 habitantes.*

Se encuentra a 37 km de Pamplona y se puede llegar a Aniz a través de la carretera NA-2540, por Irurita, si venimos de Francia, o por el desvío que cogemos a la salida del túnel de Almandoz, si venimos de Pamplona.
En la escalinata de piedra que nos lleva a la iglesia de la Asunción nos encontramos con un elemento muy singular, una estela discoidea. Las estelas discoideas son monumentos funerarios tallados en piedra (arenisca) generalmente con la técnica del bajorrelieve. Dos son los temas más repetidos: la cruz formada por trazos paralelos con espirales helicoidales en sus brazos, y el sello de Salomón. Estas piedras se clavaban verticalmente en la tierra, presidiendo las tumbas de los difuntos, casi siempre orientadas hacia la salida del sol, aunque hemos de destacar que ninguna se halla actualmente en su lugar original.

heriotzaren bat edo muga adierazteko. Bertze guziak elizen inguruan egiten ziren ehorzketetan zeuden. Vidal Perez de Villarealek erraten du bizipen sakonak adierazteko modu plastikoa direla.
Parrokia-eliza berriki eraiki da, Jasokundearen Ama Birjinaren ohoretan.
Herriko bestak urriaren lehen igandean ospatzen dira.

Algunas proceden del campo y podrían representar la ubicación de algún fallecimiento fortuito o alguna señal de término. Todas las demás proceden de los antiguos enterramientos que se realizaban en las inmediaciones de las iglesias. Vidal Pérez de Villarreal explica el simbolismo de ellas como la expresión plástica de una vivencia íntima.
La iglesia parroquial de reciente construcción está dedicada a Nuestra Señora de la Asunción.
Las fiestas patronales se celebran en el primer domingo de octubre.

Arizkun

Altitudea: 278 metro.
Biztanleria 2019an: 554 biztanle.

Iruñetik 57 km-ra dago. Herrira heltzeko, N-121-B errepidea hartu behar da. Elizondo eta Elbete zeharkatuta "Arizkun" adierazten duen bidegurutzea topatuko dugu, eskuinaldera. Arizkunen lau auzo ditu: Aintzialde, Bozate, Ordoki eta Pertalats.
Urtsuako jauregia (Bozate auzo ondoan) Erdi Aroko dorretxea da, Nafarroako nobleziaren sortetxerik zaharrenetako bat. Kondairaren arabera, dama eder bat, Iparraldeko Lantain etxeko alaba, Ursua jauregiko oinordekoarekin ezkondu zen. Ezteietan, andrea haurdun zegoela ohartu zen senarra. Senarrak lotara joan aitzin jauregiko ermitara joan behar zutela erran zion. Etxeko atarian andrea iraindu eta ezkontza-jantzia soinetik kendu, eta zetazko zapi batez ito zuen. Ondoren, zaldia hartuta, Frantziara ihes egin zuen. Batzuek

Arizkun

Altitud: *278 metros.*
Población en 2019: *554 habitantes.*

A 57 km de Pamplona, se llega por la N-121-B hasta que pasando Elizondo y Elbete, encontremos un desvío a la derecha que indique Arizkun. Cuenta con cuatro barrios, Aintzialde, Bozate, Ordoki y Pertalats.
El palacio de Ursua (cerca del barrio de Bozate) es una casa-torre medieval, cuna de uno de más rancios linajes de la nobleza navarra. Está ligado a una leyenda en la que se cuenta que una hermosa dama, hija de la Casa de Lantaina del norte del país, se casó con el heredero del palacio baztanés. En el banquete nupcial notó éste que su esposa estaba en cinta. Le engañó diciendo que antes de retirarse debían hacer una visita a la ermita del palacio; en el patio de la casa, el novio la vituperó y le arrancó el vestido de novia. Después de estrangularla con su pañuelo de seda tomó

erraten dute zaldiak ferrak atzekoz aurrera iltzatuak zituela, ihesaren arrastoak nahastearren.

Etxeberria etxea (Lamiarritan) gaur egun erlijio-erakunde baten esku dago.

Aipatzekoa da Iturraldea etxearen teilatuhegala; izan ere, hegalkin berezia du, hiru gorputzekoa.

Bergara jauregia, Erdi Aroko dorretxea. itxura oldarkorra eta gerrarakoa du. Gezileihoak eta leiho mainelatuak ditu.

Lamiarrita parajean Laxoan aritzeko jokalekua dago. Gaur egun erabiltzen ez den arren, euskal pilotaren modalitate horretako txapelketa ikusgarriak egin dira bertan. Euskal pilotaren modalitaterik antzinakoena dugu, eta Baztan eta Malerreka aldean soilik jokatzen da.

Arizkungo plazan, herriko zaindariaren egunean, San Joan egunean, ekainaren 24an, eta meza nagusiaren ondotik, mutildantzak ikusteko aukera izanen dugu.

Erlijio-eraikinetan, Aingeruen Ama Birjinaren komentua da aipatzekoa. XVIII. mendeko eraikina da, eta armarri guztiz ederra du harrizko fatxada barrokoan. Orobat, aipatzekoa da San Joan Bataiatzailearen eliza, harrizkoa.

Garai bateko lanbideak zirenaren isla ditugu gaur egungo eskulangileak. Cesareo Soulek harria lantzen du. Haren erakusketa-tailerra ikus dezakegu, eta bertan hilarriak, disko-formakoak. Eskulangilea dugu, halaber, Pedro Zapata; forja lantzen du Pedrok, garai batean tresnak izandakoak.

Arizkungo .

un caballo que tenía apostado, huyendo seguidamente a Francia. Algunos añaden que las herraduras del caballo estaban clavadas de atrás hacia delante para confundir la pista de la huida.

La casa Etxeberria (en Lamiarrita) es hoy propiedad de una institución religiosa.

La casa Iturraldea destaca por la riqueza de su alero, de vuelo poco corriente y tres cuerpos.

El palacio de Bergara, antigua torre medieval, conserva su aspecto agresivo y guerrero en su estructura austera y compacta con saeteras y ventanas geminadas.

En el paraje de Lamiarrita nos encontramos un campo de "laxoa" o guante, que aunque hoy esté en desuso, ha sido marco de espectaculares campeonatos de esta modalidad de pelota vasca, la más antigua que perdura en la actualidad, siendo Baztan y Malerreka las únicas zonas donde se conserva.

En su plaza, el día del Patrón (Día 24 de junio, San Juan Bautista), tras la Misa Mayor, podemos ver bailar las "mutildantzas".

En los edificios religiosos destacamos el Monasterio de Nuestra Señora de los Ángeles, edificio del siglo XVIII de imponente fachada barroca con un escudo de grandes dimensiones; y la iglesia de San Juan Bautista, realizado en piedra.

Ejemplos de lo que antaño eran oficios son hoy los artesanos. Podemos visitar los talleres de Cesáreo Soulé, que talla piedra y en el que podremos admirar preciosas estelas discoideas; y de Pedro Zapata, especialista en el trabajo en forja.

Bozate auzoan antzina Agoteak bizi ziren. Giza talde hau historikoki baztertua izan da, eta haien jatorriaz hainbat iritzi dago.
Auzo horretan berean Santxotena Parke-Museoa dago.
Arizkunen, Gamixarreko etxean, XVIII. mendeko dolarea aurkitzen da, oraindik sagardoa egiten duena.
Herriko bestak ekainaren 24an dira, herriko zaindari San Joan Bataiatzailaren ohoretan.

El barrio de Bozate de esta localidad es famoso por la permanencia en él de los Agotes, un grupo social marginado históricamente, acerca de cuyo origen se han dado varias opiniones.
En el mismo barrio se encuentra el Parque -Museo Santxotena.
En Arizkun, junto la casa Gamioxarrea, encontramos también un antiguo lagar de sidra del siglo XVIII aún en funcionamiento.
Las fiestas patronales se celebran el 24 de junio. en honor a San Juan Bautista,

Gamioxarreko dolarea *Lagar de sidra de Gamioxarrea*

Bergara Jauregia
Palacio de Bergara

Urtsuako Jauregia
Palacio de Ursua

Baztango herriak *Lugares de Baztan*

Arraioz

Altitudea: 233 metro.
Biztanleria 2019an: 245 biztanle.

Iruñetik 45 km-ra dago. Herrira heltzeko, herria zeharkatzen duen N-121-B errepidea hartu behar da. Arraiozek Mardea izeneko auzoa du

Kanpoaldetik hiru jauregi ikusten ahal dira: Jauregizarrea (herria zeharkatzen duen errepidetik bertatik ikusten ahal da, ezkerretara), Bikuña (elizaren ondoan) eta Zubiria (ibaiaren ondoan).

Jauregizarrea, Nafarroako antzinako nobleziaren leinu-etxea da eta Erdi Aroko dorretxearen itxura dauka. Eraikinak, bao bikoitzak eta angeluzuzenak dituzten harrizko bi gorputzen gainean, zurezko eraikin interesgarria du bistara, ongi kontserbatu dena. Usategi karratua ere badu.

Zubiria jauregia, Nafarroako antzinako nobleziaren leinu-etxea da eta Erdi Aroko dorretxearen itxura dauka.

Bikuña jauregia, Nafarroako antzinako nobleziaren leinu-etxea da. Hiruetatik

Arraioz

Altitud: *233 metros.*
Población en 2019: *245 habitantes.*

Se encuentra a 45 Km de Pamplona y se llega a Arraioz a través de la N-121-B, que atraviesa el pueblo. Arraioz tiene un barrio, Mardea.

Desde el exterior de la localidad, los palacios de Jauregizarrea (se puede observar desde la propia carretera que atraviesa el pueblo, a la izquierda), Jauregia de Vicuña (junto a la iglesia) y Zubiria (al lado del río).

El palacio de Jauregizarrea es un cabo de armería de nómina antigua. Mantiene el aspecto original de torre armera medieval. En esta construcción, sobre dos cuerpos de piedra, en los que abren vanos geminados y rectangulares, se alza una interesante estructura de madera vista que se conserva en buen estado. Culmina el edificio un palomar cuadrangular.

Zubiria, palacio cabo de armería de nómina antigua, mantiene el aspecto original de

aintzinakoena da.
Arraiozen, elizaren ondoan, gaur egun laxoan jokatzeko dagoen plazarik ederrena dago. Toki paregabea da, beraz, gaur egunera arte bizirik iraun duen euskal pilotaren modalitaterik antzinakoenaz gozatzeko.
Herriko eliza Jasokundearen Ama Birjinaren ohoretan eraiki zuten. Eraikin barrokoa da. Barnealdean, erretaula neoklasikoa du, eta hilobi-harlauzak atari arkupetuan.
Herriko bestak irailaren lehendabiziko igandean dira.

torre armera medieval.
Jauregia de Bicuña es un palacio cabo de armería. Es el más antiguo de la localidad.
En Arraioz, junto a la iglesia, nos encontramos la plaza de guante o "laxoa" más bonita de las que se conservan. En ella podremos admirar la modalidad de pelota vasca más antigua que perdura en la actualidad.
La iglesia del Lugar está dedicada a Nuestra Señora de la Asunción. Es una construcción barroca con retablos neoclásicos en su interior y losas sepulcrales en el atrio porticado.
Las fiestas patronales se celebran el primer domingo de septiembre.

Baztango herriak *Lugares de Baztan*

Azpilkueta

Altitudea: 367 metro.
Biztanleria 2019an: 188 biztanle.

Iruñetik 59 km-ra dago. Herrira heltzeko N-121-B errepidea hartu behar da. Errepideko puntu batean, ezkerretara, Azpilkuetarako desbideratzea dago. Herriak lau auzo ditu: Arribiltoa, Apaioa, Urrasun eta Zuaztoi.

Azpilkuetan, Baztango hainbat eta hainbat lekutan bezala, lamien erreferentziak aurkituko ditugu. Herri honen inguruko mendi batean, Meatzeta parajean, hain zuzen ere, bi emakume lurperatu omen zituzten, biak ere lamiak. Tradizioaren arabera, bertan sortzen omen dira ekaitzak.

Bertzalde, Azpilkuetako Jauregiberria arkitekturaren taxua azpimarratu behar dugu. Leinu-etxe hau San Frantzisko Xabierkoaren amaren sortetxea izan zen. Erdi Aroko dorretxea, defentsarako gotorlekua, Cisneros Kardinalaren aginduz birrindu zuten ia osorik 1516. urtean.

Azpilkuetako Apaioa auzoan, arkitekturaeredu ederra topatuko dugu. Iriartea etxe-

Azpilkueta

Altitud: *367 metros.*
Población en 2019: *188 habitantes.*

A 57 km de Pamplona, se llega por la N-121-B hasta que en un cruce nos indica Azpilkueta a la izquierda. Azpilkueta cuenta con cuatro barrios: Arribiltoa, Apaioa, Urrasun y Zuaztoi.

En Azpilkueta, al igual que en otros muchos lugares del valle, encontramos referencias a las lamias. Ligado a esta localidad se cuenta que en una de sus montañas, concretamente en el paraje de Meatzera, fueron enterradas dos mujeres. Ambas eran lamias y la tradición asegura que de este lugar proceden las tempestades.

Por otro lado, tenemos que resaltar el empaque de la arquitectura palaciega que podemos observar en el palacio de Jauregiberria. Palacio de cabo de armería, cuna de la madre de San Francisco Javier. La primitiva torre medieval, verdadera fortaleza defensiva, fue demolida casi por completo por Orden del Cardenal Cisneros el año 1516.

En el barrio de Apaioa de esta misma lo-

ren armarrian Velázquezen garaiko koadro blasoidun barrokoa dauka. Armarriko kasket astun eta gogorraren lekuan, gizaki baten aurpegia dago, albora begira, garaiko artisten koadroetan agertzen zirenen antzekoa (aurpegiera, bibotea, kokotsa eta kapela). Oraindik ere koadro blasoidunak izan zuen kolorearen arrastoak ikus daitezke.

Eliza San Andresen ohoretan eraiki zuten. Barnealdean XVIII. mendearen bigarren erdialdeko erretaula-multzo aipagarria dago. Elizaren egungo itxura XVIII. mendean egin zen zaharberritze baten ondorioa da.

Herriko bestak uztailaren 7an dira, San Fermin egunean.

